



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VI. legegintzaldia

Iruña, 2006ko maiatzaren 18a

49. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- Nafarroako toki sektore publikoari buruzko fiskalizazio txostena, 2003ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina ([2. or.](#)).
- Atarrabiako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2004ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina ([19. or.](#)).
- Cintruénigoko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2004ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina ([27. or.](#)).
- Azkoiengo Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2004ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina ([33. or.](#)).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako toki sektore publikoari buruzko fiskalizazio txostena, 2003ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko urtarrilaren 30ean eginiko bilkuran, erabaki zuen Comptos Ganberak Nafarroako toki sektore publikoari buruz egindako fiskalizazio txostena, 2003ko ekitaldikoa, argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2006ko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Nafarroako toki sektore publikoari buruzko fiskalizazio txostena, 2003ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (2. or.).
 - II. Helburua (3. or.).
 - III. Norainokoa eta mugak (3. or.).
 - III.1. Norainokoa (3. or.).
 - III.2. Mugak (5. or.).
 - IV. Ondorioak (6. or.).
 - IV.1. Nafarroako toki sektore publikoaren egitura (6. or.).
 - IV.2. Nafarroako toki entitateak 2003ko ekitaldian arautzen dituen arau-multzoa (7. or.).
 - IV.3. Egindako fiskalizazio txostenak (8. or.).
 - IV.4. Nafarroako toki sektore publikoaren finantza egoera 2003an (8. or.).
 - V. Udal montepioaren azterketa (10. or.).
- I. eranskina. Udal montepioaren kostua, kargu osoaren arabera (13. or.).
- Gehigarria. Nafarroako toki sektore publikoaren finantza-egoera 2003an.
- Oharra: aipatu gehigarria foru parlamentarien eskura dago Legebiltzarreko Zerbitzu Oro-

korretako bulegoetan eta ondoko webgunean:

www.cfnavarra.es/camara.comptos).

I. SARRERA

Aurten aldaketa adierazgarri bat gertatu da txosten honen aurkezpenean; izan ere, ekonomia egoerari buruzko datuak Toki Administrazioiko Departamentuak prestatu ditu, eta txosten honen eranskin gisa sartu dira.

Azpimarratu nahi dugu txosten hau egiteko oso mesedegarria izan dela IDECAL-toki administrazioaren kontabilitate espedienteetako datuak trukatzeko sistemaren ezarpen masiboa, informazioa hobeki eta azkarrago transmititzen laguntzen delako, bai eta informazioa jaso eta tramitatzen ere.

Horren ondorioz, txostenak ondoko atalak ditu:

- Sarrera.
- Helburuak.
- Norainokoa eta mugak.
- Ondorioak, Nafarroako toki sektore publikoaren egiturari, Nafarroako toki entitateen arau-esparruari eta Nafarroako toki sektorearen finantza egoerari buruzkoak.
- Udal funtzionarioen montepioaren egoeraren azterketa.
- Montepioaren defizitari udalek egindako ekarpenak zehazturik ematen dituen eranskin bat.
- Gehigarri bat (Toki Administrazioiko Departamentuak Nafarroako toki sektore publikoaren finantza egoerari buruz 2003an egindako txostena).

Gehigarri horrek bi zati ditu; lehenengoan toki sektore osoaren datu erantsiak jasotzen dira (udalak eta kontzejuak, eta mankomunitateak). Bigarrenean, berriz, aurrekontu likidazioak eta udalen arabera zenbait adierazle.

II. HELBURUA

Nafarroako toki administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearekin eta Comptos Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearekin bat etorriz, Nafarroako toki sektore publikoari buruzko 2001eko ekitaldiko txostena egin da.

Txosten hau eginez, Comptos Ganberak ondoren aipatzen diren helburuak lortu nahi ditu:

a) Parlamentuari, administrazio publikoei eta Nafarroako iritzi publikoari Nafarroako toki entitateen antolamenduari eta egoera ekonomikoari buruzko ikuspegi bat ematea, baita haien jarduera legezketasun-printzipioaren arabera den, Comptos Ganbera honek xede horretarako egin dituen lanen arabera.

b) Nafarroako toki administrazioari buruzko Foru Legeko (aurrerakoan TAFL) 350.2 artikulua esaten duena betetzea, hark ezartzen baitu derrigorrezkoa dela urtero bidaltzea Nafarroako Parlamentuari eta Gobernuari Comptos Ganberak toki esparruan egin dituen jarduketan berri ematen duen laburpen-txostena.

c) Nafarroako Parlamentuari eta administrazio publikoei proposatzea, hala badagokio, toki entitatei kudeaketa hobetzeko bidea emanen dien neurri orokorren multzo bat aurrera eraman dezaten.

d) Nafarroako udal guztien kontuen laburpena aurkeztea, laburpen horretan jarriz haien egoera ekonomiko-finantzarioaren azterketa erraztuko duten adierazleak.

Helburu orokor horiez gain, Nafarroako udal funtzionarioen montepioaren defizita zenbait udalen artean banatzearen ondorioak aztertu ditugu.

Toki entitateek ekitaldi bakoitzeko kontu orokorrak onetsi eta gobernuari igortzeko Toki ogasunei buruzko Foru Legeak ezarritako epeak eta informazio horren tratamenduaren zailtasuna direla eta, txosten hau ezin izan da egin aurtengo bigarren seihilekoa baino lehen.

Arestian aipatutako atzerapena dela-eta, txosten honetan zehar jaso eta aipatzen diren gomendioetako batzuk txosten hau eman bitartean aplikatu ahal izan dira.

III. NORAINOKOA ETA MUGAK

III. 1. NORAINOKOA

Lan hau egiteko ondoko dokumentazioa aztertu dugu:

a) Toki sektore publikoaren egitura. Nafarroako Estatistika Institutuaren eta Toki Administrazioiko Departamentuaren informazioa baliatu dugu, bai eta Nafarroako Comptos Ganberarena berarena ere.

b) Arau-esparrua. Ekitaldian zehar onetsi eta argitaratu den araudia aztertu da.

c) Fiskalizazio txostenak. Comptos Ganberak 2003ko ekitaldiari buruz egin eta argitaratutako ondoko txostenak baliatu dira:

Fiskalizaturiko udalak, <5.000 biztanle	Ekitaldia	NAO. Zk. (data)	Biztanleak, 2003-01-01eko zentsuaren arabera	Aitorturiko eskubideak (eurotan)	Aitorturiko betebeharrak (eurotan)
Allo	2003	64 (16/06/2005)	1.029	1.328.980,00	1.118.162,00
Orkoien	2003	91 (23/09/2005)	1.885	5.727.867,00	3.202.750,00
Guztira			2.914	7.056.847,00	4.320.912,00

Fiskalizaturiko udalak, >5.000 biztanle	Ekitaldia	NAO. Zk. (data)	Biztanleak, 2003-01-01eko zentsuaren arabera	Aitorturiko eskubideak	Aitorturiko betebeharrak
Altsasu	2003	11 (15/02/2005)	7.355	6.664.868,00	5.314.528,00
Antsoain	2003	11 (15/02/2005)	8.854	11.441.870,66	11.566.003,38
Barañain	2003	36 (21/04/2005)	21.540	12.307.581,00	16.006.956,00
Baztan	2003	30 (04/04/2005)	7.746	10.288.372,00	8.766.525,00
Berriozar	2003	25 (18/02/2005)	7.577	6.800.697,00	8.061.744,00
Burlata	2003	36 (21/04/2005)	17.964	12.049.606,59	12.656.547,01
Cintruénigo	2003	64 (16/06/2005)	6.349	11.658.805,00	10.643.633,00
Corella	2003	36 (21/04/2005)	7.432	8.202.819,00	7.879.105,00
Lizarra	2003	42 (04/05/2005)	13.449	11.472.035,00	12.281.909,00
Iruña	2003	39 (27/04/2005)	190.937	171.712.873,97	191.907.755,39
Azkoien	2003	39 (27/04/2005)	5.668	6.803.466,00	7.339.944,00
Tafalla	2003	7 (04/02/2005)	10.842	13.155.816,00	12.202.629,00
Tutera	2003	36 (21/04/2005)	31.228	34.760.365,57	37.459.321,39
Atarrabia	2003	39 (27/04/2005)	10.035	7.188.746,00	7.018.511,00
Zizur Nagusia	2003	11 (15/02/2005)	12.474	7.279.966,10	7.412.702,59
San Adrián	2003	42 (04/05/2005)	5.793		
Guztira			359.450	331.787.887,89	356.517.813,76

Fiskalizaturiko 18 entitate horien populazioa 362.364 biztanlez osatua da, hau da, Foru Komunitateko 2003ko urtarrilaren 1eko zentsuan dauden 578.210 biztanleen ehuneko 62,7.

Udal horien menpeko 30 erakunde autonomo ere azertu dira, hau da, 2003ko urtarrilaren 1eko 75en ehuneko 43.

Fiskalizatu den erakunde autonomo horien aurrekontu betetzea 52.249.130,16 eurokoa da aitorturiko eskubideen kasuan, eta 50.898.591,02 eurokoa aitorturiko betebeharrean. Aitorturiko eskubide eta betebeharrak hauek dauzkate:

Toki entitatea	Erakunde autonomoa / Patronatua	Aitorturiko eskubideak	Aitorturiko betebeharrak
Altsasu	Aita Barandiaran zahar-etxea	639.309,00	639.309,00
	Musika Patronatua	146.417,00	151.887,00
	Kirol patronatua	Baja, 2003-01-31	
Antsoain	Gazte-Berriak Kirol eta Kultura Patronatua	89.871,23	392.432,84
	Euskara sustatzeko Patronatua	43.498,26	77.131,76
	Sexu Hezkuntza eta Jaiotza-kontrolerako Patronatua	0,16	9.692,00
Barañain	Lagunak Udal Zerbitzua	1.122.687,00	1.373.923,00
	"Luis Morondo" Musika Eskola	746.140,00	724.521,00
Baztan	Francisco Joaquín de Iriarte zahar-etxea	1.411.569,00	1.401.476,00
	Baztan Ikastola	423.379,00	408.464,00
Burlata	Kirol patronatua	1.685.306,80	1.656.395,54
	Kultura patronatua	396.866,06	397.649,88
	Musika Patronatua	655.959,43	657.499,61
Cintruénigo	Uren Udal Batzarra	1.099.121,00	918.175,00
	San Francisco de Asís Udal Patronatua	1.001.745,00	1.210.364,00
Corella	San José zahar-etxea	514.093,00	593.278,00
Lizarra	Musika Patronatua	110.631,00	241.054,00
Iruña	Hirigintza Gerentzia	30.963.867,71	28.432.852,09
	Haur Eskolak	4.589.088,31	4.376.574,04
Azkoien	Musika eskola	110.856,00	169.948,00
Tafalla	Musika eskola	198.753,00	378.657,00
	Kultura patronatua	31.516,00	353.580,00
	Kirol patronatua	222.077,00	539.648,00
Tutera	Uren Udal Batzarra	3.048.222,61	2.768.930,97
	Castel-Ruiz Kulturgunea	1.632.703,60	1.676.709,65
Atarrabia	Kirol Patronatua		
Zizur Nagusia	Musika Eskolaren Patronatua	336.070,52	329.065,01
	Kultura patronatua	387.251,47	389.647,32
	Ardoi Kirol Patronatua	416.500,00	401.923,31
Orkoien	Mendikur Kirol patronatua	88.358,00	85.091,00
	Argia Patronatua	137.273,00	142.712,00
	Guztira	52.249.130,16	50.898.591,02

d) Finantza egoera. Toki Administrazioako Departamentuak emandako informazioan oinarrituta egin da (informazioa txosten honen gehigarri gisa doa).

e) Udal montepioa aztertze aldera lan berariazkoa egin da, eta ondoko alderdiak aztertu: defizitaren banaketa, herri bakoitzeko pentsiodun kopurua, montepioari atxikitako funtzionario kopurua eta inguruabarrekin bat beharrezkotzat jo diren bestelako alderdiak. Lana egiteko unean prest zeudenez 2004ko datuak, egokiagoa iruditu zaigu haiekin lan egitea, gaurkotuagoak izateagatik.

III. 2. MUGAK

Txosten hau egitean eragina izan duten mugak honako hauek dira:

- Ez da toki sektore publikoaren bateratzeari buruzko araurik; hori dela eta, ez dugu toki entitateen finantzetako egoera-orri bateraturik.

- Nafarroako toki sektore publikoaren 2003ko ekitaldiko aurrekontu-betetzeari eta egoera ekonomikoari buruz eskueran dagoen informazioa ez da osoa. Halere, gure ustez, igorritako kontu kopurua


handia izan denez, toki sektorerako baliozkotzat jo daitezkeen ondorioak atera daitezke.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Nafarroako toki entitateetako, Nafarroako Gobernuako Toki Administrazioako Departamentuko eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioko langileei, lan hau egiteko eskaini diguten laguntzarengatik.

IV. ONDORIOAK

IV.I. NAFARROAKO TOKI SEKTORE PUBLIKOAREN EGITURA

2003ko abenduaren 31n, honelaxe osaturik dago Nafarroako toki sektore publikoa:



Jarraian, Nafarroako toki sektore publikoak 1999, 2000, 2001, 2002 eta 2003ko abenduaren 31n duen egitura azalduko dugu, fundazioak kontuan hartu gabe:

Entitatea	1999	2000	2001	2002	2003
Udalerrriak	272	272	272	272	272
Kontzejuak	366	363	362	362	362
Mankomunitateak	59	59	62	64	64
Udal batasunak	9	9	10	10	10
Partzuergoak	8	8	8	8	11
Erakunde autonomoak (udalak eta mankomunitateak)	74	76	75	76	75
Udalen merkataritza-sozietateak	6	9	9	10	13
Mankomunitateen merkataritza-sozietateak	5	5	5	5	5
Guztira	799	801	803	807	812

Iturria: Datuak aurreko txostenetatik, Nafarroako Estatistika Institututik eta Toki Administrazioako Departamentutik atera dira.

Bost entitate gehiago daude guztira. Hona azalpena:

	Alta	Baja
Partzuergoak	Urrobi	
	Iruñerriko ibai parkea	
	Tarazonicaren Bide Berdea	
Erakunde autonomoak		Altsasuko Udalaren Kirol Patronatua
Sozietateak	Iturgain, S.A.	
	Pamplona Centro Histórico	
	Congresos Pamplona C.B.S.A.	

Comptos Ganbera honen iritziz –behin eta berriro adierazi izan duen bezala–, arazoa ez da, berez, entitate-kopurua, baizik eta botere publikoek nahi izatea Nafarroako Toki Administrazioaren ereduak gaurkotu gabe jarraitzea. Eredu horrek bateragarri egin beharko ditu herritarren gaur egungo eskaerak eta kudeaketa publiko zentzuzkoa.

Gure gomendioa da lehentasunez eta presaz aplika daitezela Nafarroako Toki Administrazioaren gaur egungo egoera arrazoizkoagoa izan dadin beharrezkoak diren neurri administratibo eta legegintzakoak. Neurri horiek baliagarri izan beharko dute XXI. mendean herritarren beharrei erantzun eraginkor eta efizientea emateko, eta xede hori erdiesteko behar diren finantza baliabideak edukitzeko.

Neurri horiek Nafarroako gizarte osoan eta haren botere publikoetan izanen dute eragina; hori dela eta, adostasun zabala lortu behar da aipatu ereduak zehazteko, betiere herritarren borondatea eta zilegi diren interesak errespetatuz.

IV. 2. NAFARROAKO TOKI ENTITATEAK 2003ko EKITALDIAN ARAUTZEN DITUEN ARAUMULTZOA

2003an toki eremuko arauetan aipatzeko moduko ondoko berrikuntzak eman dira:

- Martxoaren 5eko 10/2003 Foru Legea, Nafarroako administrazio publikoen montepioetako funtzionarioen eskubide pasiboen araubide iragankorri buruzkoa.

- Apirilaren 4ko 23/2003 Foru Legea, karguan aritzeagatik euren kideei ordainsariak ordaintzen dizkieten Nafarroako udalei konpentsazio ekonomikoak emateko sistema bat ezartzen duena.

- Gorte Nagusiek Toki gobernuaren modernizazioarako neurriei buruzko abenduaren 16ko 57/2003 Legea onetsi zuten; lege horrek, toki entitateen araubide juridikoan zenbait aldaketa egitearekin batera, araubide berezia ezarri zuen hiri handietarako. Lege hori 2004an garatu zen Nafarroan, urriaren 29ko 11/2004 Foru Legea onetsi zelarik.

- 227/2003 Foru Agindua, ekainaren 10ekoa, Toki Administrazioako kontseilariak emana, Interesen Erregistro Berezia sortzen duena Nafarroako Foru Komunitaterako.

Toki entitateei aplikatzekoa zaien esparru juridikoa dela eta, Comptos Ganbera ondokoa utzi nahi du jasota:

1. Nafarroako toki sektoreari administrazio-arrazoizkotasun handiagoa emate aldera Toki administrazioari buruzko 1990eko Foru Legean ezarritako bideek ez dute eman bilatzen zen fruitua, eta emaitzak eskasak izan dira; izan ere, Nafarroako toki entitateen nahiz haien menpeko erakunde eta enteen kopurua etengabe igo da azken urteotan.

2. Orobat ikusi dugu toki entitateek egindako kontratuak, oro har, ez direla igortzen Administrazio Kontratazioarako Batzordearen menpeko Kontratuen Erregistro Publikora –erregistro hori Kontratuei buruzko Foru Legeko 163. artikuluan ezarritakoari jarraikiz ezarri zen, eta bide ematen du toki administrazioak egiten dituen kontratuak ezagutzeko, bai eta haiek betetzeak sortutako gorabeherak ere–. Kontratuei buruzko foru lege berriak 2006an hartuko bide du indarra, eta aldaketak ekarri beharko ditu arlo horretan; hortaz, toki entitateek prestatuta egon beharko dute teknologikak berriak erabiltzeko eta datuak bide telematikoa baliatuz igortzeko, kontratuak eta horiek eragindako gorabeherak igorri beharri erantzute aldera, igortzea beharrezkoa baita udal jardueraren fun-

tsezko arlo hori areago kontrolatu eta ezagutu nahi bada.

3. Toki sektorea osatzen duten gainerako entitateei buruzko finantza-informazioa edukitzea komeni da, batez ere merkataritza-sozietateei buruzkoa, Toki ogasunei buruzko Foru Legean ezarritakoarekin bat.

Horren inguruan gogorarazi beharra dago 270/1998 Foru Dekretuak aipatzen duela ezen “bateratze egoera-orria... ez dela nahitaez bete beharrekoa izanen aplikatzekoa den bateratze arauak garatu arte”.

Hori guztia kontuan hartuta, ondokoa gomen datzen dugu:

- *Botere publikoek osa ditzatela toki entitateei buruzko arau-multzoaren xedapenak, toki entitate horiek eskura izan ditzaten indarreko legediak ezartzen dituen lanabesak eta bitartekoak, eta, horrela, euren baliabideak eraginkortasun handiagoz kudeatzeko aukera izan dezaten. Gai horretan, diseinatu beharreko administrazio ereduak aintzat hartu beharko du Nafarroako toki entitateen taxuketa anitza –tamaina, bitartekoak eta giza baliabideak–, arauetako eskakizunak egokitzeko, eta legedia indardunean ezarrita dauden neurriak hartu behar dira Foru Komunitateko toki sektorearen administrazio arrazoizkotasunaren maila areagotzeko, toki esparruan hobeki eman daitezen zerbitzuak.*

- *Toki enteen eta euren merkataritza-sozietate publikoen finantza-informazioaren aurkezteari eta bateratzeari dagozkion eta egoki diren legegintza-neurriak hartu behar dira, sozietate horiek eginiko jarduerari eta, ondorioz, toki sektore publiko guztari buruzko ikuspegi osoa emateko.*

- *Nafarroako toki entitateek egiten dituzten kontratuak Administrazio Kontrataziorako Batzordearen menpeko Kontratuen Erregistro Publikora igorri behar dituzte, Kontratuei buruzko Foru Legeko 163. artikuluan ezartzen denari jarraikiz, toki administrazioak egiten dituen kontratuak, bai eta haiek betetzeak sortutako gorabeherak ere, ezagutzeko modua egon dadin; horretarako betebeharrak hori bete ahal izateko beharrezkoak diren neurriak hartu behar dira.*

IV. 3. EGINDAKO FISKALIZAZIO TXOSTENAK

Txosten honetako “norainokoa” atalean ikusi den legez, 18 entitate fiskalizatu dira, 30 erakunde autonomo dituzteneak, eta horiei buruzko txostenak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Comptos Ganberaren web orrian daude argitaratuta.

Horiek denak argitaratuta daudenez, txosten horietan esaten denari gagozkio.

Oro har, bilakaera positiboa izan du Nafarroako Comptos Ganberak azken urteotan fiskalizatutako entitateen kudeaketak, batez ere aldiro ikuskatu izan direnenak; salbuespena dira inbentarioen gaurkotzea eta kontratazio alorreko zenbait alderdi formal betetzeko zorrotasuna.

IV. 4. NAFARROAKO TOKI SEKTORE PUBLIKOAREN FINANTZA EGOERA 2003an.

Eranskinean aurkezten da Toki Administrazioko Departamentuak Nafarroako toki sektore publikoaren finantza egoerari buruz 2003an egindako txostena.

Toki sektore osoaren kontu bateratuei erreparatuz gero, emaitza honela laburbil daiteke:

Aurrekontu-emaitza doitua	18,5 milioi euro
Aurrezpen garbia	36,9 milioi euro
Zorpetze ahalmena	ehuneko 7,9
Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina	68,2 milioi euro
Zorra, guztira	186,7 milioi euro
Zor bizia biztanleko	328 euro

Gastuak ondoko arloetan egiten dira batez ere: inbertsioak (ehuneko 35), langileak (ehuneko 25) eta ondasun arruntak eta zerbitzuak (ehuneko 23); horien finantzazioa, berriz, transferentzietatik (ehuneko 47) eta tributu bidezko dirusarreretatik (ehuneko 34) heldu dira.

Gastuak kode funtzionalen arabera aztertuz gero, azpifuntzio nagusiak ondokoei dagozkie:

	Ehunekoa
Hirigintza	17,51
Kirolaren sustapena eta zabalkundea	9,26
Entitatearen administrazio orokorra	8,54
Uren saneamendua, hornidura eta banaketa	7,15
Pentsioak eta antzeko bestelako prestazio ekonomikoak	6,68
Finantza-zama	5,04
Segurtasuna eta udaltzaingoa	4,56
Kulturaren sustapena eta zabalkundea	4,26
Honaino, guztira	63,00

Hona azken urteotako bilakaera:

	2003	2002	2001	2000
Gastuak				
Arruntak, ehunekotan	56,5	58,1	54,3	61,7
Kapitalezkoak, ehunekotan	43,5	41,9	45,7	38,3
Dirusarrerak				
Arruntak, ehunekotan	68,9	66,4	65,4	75,4
Kapitalezkoak, ehunekotan	31,1	33,6	34,6	24,6

2000tik 2003ra bitartean jaitsi egin da gastuen eta dirusarrera arrunten pisua, eta, hortaz, igo egin dira kapitalezkoak.

Dirusarrerak nondik heldu diren aztertzen badugu, egonkortasun moduko bat dagoela ikusten da; ondoko taulan ikus daitekeenez, transferentziak dira garrantzitsuenak:

	(ehunekoak)			
	2003	2002	2001	2000
Dirusarreren jatorria				
Tributu bidezko dirusarrerak (1+2+3)	34	32	32	37
Transferentziak (4 eta 7, hirigintza gabe)	43	42	39	44
Hirigintza	4	7	12	5
Finantza eragiketak	8	4	7	5
Ondarezkoak(5+6)	10	15	10	8
Guztira	100	100	100	100

Ondoko taula honetan islaturik dago zein izan den gastu eta dirusarrera arrunten bilakaera 2000tik 2003ra:

	2003	Aldaketaren % 2003/02	Aldaketaren % 2003/00	2002	Aldaketaren % 2002/01	2001	2000
Gastu arruntak (1etik 4ra)	399.978.927	8,3	27,7	369.235.005	7,7	342.961.271	313.203.912
Biztanle bakoitzeko gastu arruntak	696	6,7	20,3	653	5,1	621	579
Gastu arruntak (1etik 5era)	466.765.215	4,2	15,8	447.951.952	8,5	412.998.159	403.047.518
Dirusarrera arruntak biztanleko	813	2,7	9,1	792	5,9	747	745
Tributu bidezko dirusarrerak (1+2+3)	233.143.120	6,6	17,9	218.651.278	9,6	199.523.140	197.779.485
Tributu bidezko dirusarrerak (1+2+3) biztanleko	406	5,0	11,0	386	7,0	361	366
Erreferentziako populazioa	574.396			565.871		552.594	540.929

Populazioa ehuneko 6,2 hazi den epe horretan:

- Gastu arruntak ehuneko 27,7 hazi dira, baina igoera ehuneko 20,3koa baizik ez da biztanleko aztertuz gero.
- Gastu arruntak ehuneko 15,8 igoera dira, baina biztanle bakoitzeko aztertuz gero ehuneko 9,1ekoa da igoera.
- Tributu bidezko dirusarrerak ehuneko 17,9 igo dira, baina biztanleko aztertuz gero ehuneko 11koa da igoera.

Honako hau izan da azken urte hauetako zorraren bilakaera:

	(Euroak, milioitan)			
	2000	2001	2002	2003
Zorra, guztira	156	170	172	187
Zorra biztanleko	293	314	309	328

Datu horien arabera, 2000 eta 2003 arteko zorra ehuneko 19 igo da, nahiz eta biztanleko zorra ehuneko 12 soilik igo.

Eranskinaren bigarren partean sartu dira udal bakoitzari buruzko datuak, eta, aldez aurretik, zortzi biztanle-tarteei buruzko batez besteko adierazle batzuk (500 biztanletik 50.000 biztanletik gorako udalei buruzkoak), halako moduz non entitate bakoitza bere biztanle-tarte berekoen batez beste-koarekin konpara daitekeen.

V. UDAL MONTEPIOAREN AZTERKETA

Ondokoa ezartzen du Nafarroako udal funtzionarioen montepioari buruzko araudi indardunak –funtsean, Nafarroako Foru Kontseilu Administrazioaren 1947ko maiatzaren 31ko, 1971ko abenduaren 29ko eta 1976ko abenduaren 29ko erabakiak eta Eskubide pasiboei buruzko martxoaren 5eko 10/2003 Foru Legea–:

“Montepioaren funtsak bazkideen eta udalen kuotek osatuko dituzte, aurreko ekitaldian erretiroengatik eta pentsioengatik montepioak ordaindu duen zenbateko osoa itzuli arte.

Montepioaren dirusarrera eta gastuen arteko defizita berdintze aldera, banaketa pasibo bat eginen da Nafarroako udalen artean, ondoko arauari jarraikiz:

a) Idazkariei eta fakultatiboei (sendagileak, praktikanteak, albaitariak eta farmazialariak) dagokien defizita udalei igorriko zaie, 1970eko abenduaren 31n indarrean zen eroldan edo haren gainean bost urtez behin egindako zuzenketetan agertzen diren biztanleen proportzioaren arabera.

b) Gordailuzain funtzionarioei, nomina eta plantillako emaginei eta gainontzeko administrazio funtzionarioei eta menpekoei dagokien defizita udalei igorriko zaie, duten langile kopuruaren arabera.

Banaketa pasibo horretatik salbuetsita egonen dira udalak baldin eta euren barne araubideko erregelamenduan esleiturik badituzte funtzionarioen eskubide pasiboak eta, horrenbestez, montepioak ez badira ⁽¹⁾.

(1) Ondoko udalak salbuetsita daude, funtzionarioak montepio honetakoak ez izateagatik: Iruña, oso-osorik, eta hein batean Tuteran (osasun arloko hango funtzionarioak montepio honetakoak dira) eta Tafalla (idazkaria eta osasun arloko funtzionarioak montepio honetakoak dira).

Nafarroako toki entitateek Nafarroako udal funtzionarioen montepioko klase pasiboen urteroko kostu garbi osotarakoa finantzatuko dute, ehuneko 64,3 hain zuzen. Aurreko kostu garbi osotarakoa finantzatzeko behar diren kopuru osagarriak Nafarroako aurrekontu orokorretatik hartuko dira.”

Defizita 16.851.922 eurotan ezarri zen 2004an, eta haren banaketa 2005eko apirilaren 13ko 44. NAO-n eman zen agiritara.

Hemen aurkezten diren kalkuluak defizit osoa aintzat hartuta egin dira, zeina udalen artean banatzen baita Nafarroako aurrekontuen kargurako ekarpena aintzat hartu gabe.

Egindako lanetik ondorio hauek atera ditugu:

- 1.244 pentsiodun daude guztira; 2003an 16.851.922 euroko defizita sortu zuten montepioan; alegia, batez beste 13.546 euro pentsiodun bakoitzeko. Dena den, kontuan hartu beharra dago hainbat pentsio mota daudela.

- 1.244 pentsio horiek ondokoei dagozkie:

Udalerria	Biztanleak	Kargua	Jarduneko funtzionarioak
Zizur Nagusia	12.833	295.211	0
Orkoien	1.885	70.332	1
Beriain	3.042	69.978	0
Aiegi	1.260	55.955	2
Irurtzun	2.234	51.391	1

- Gainerako kargua –16.037.968 euro– 203 udalen artean banatzen da, 1.219.362 eurotik hasi (Burlata) eta 391 eurora bitarte (Petilla de Aragón). Iruñeak, salbuetsita baitago, eta Gazteluberrik, pentsiodun bat baitu, ez dute inolako kargurik.

- Burlata da pentsiodun gehien (40) eta, aldi berean, montepioari atxikitako jarduneko funtzionario gehien (32) duen udala.

Udala	Kargua, guztira	Pentsiodunak	Kostua, pentsioduneko
Barañain	929.900	1	929.900
Antsoain	389.237	1	389.237
Berriobeiti	91.690	1	91.690
Atarrabia	672.893	11	61.172
Tutera	363.804	6	60.634
Berriozar	279.462	5	55.892
Noain	151.799	3	50.599

Alargun pentsioak, 489

Erretiro pentsioak, 334

Zurztasun pentsioak, 223

Ezgaitasun pentsioak, 150

Bestelako pentsioak, 48

- 67 udal dira euren kargura pentsiodunak ez dutenak eta guztira 813.953 euroko zama dutenak (guztiaren ehuneko bost); ekarpenak 295.211 eurotik hasi (Zizur Nagusia) eta 598 euro bitartekoak (Orreaga) dira.

- 67 udal horiek 12 funtzionario dute jardunean montepioari atxikirik, 18.024 euroko kuota jartzen dutenak.

- Orkoien, Aiegi eta Lekunberri kenduta, idazkari eta fakultatiboen defizitaren banaketari dagokio kargua kasu guztietan. Aipatu hiru udal horietan administrari edo menpekoen kargua ere egiten da.

- Ondoko bost udalek 50.000 eurotik goitiko kargua dute:

- Pentsiodunak dituzten 203 udaletatik, 41 daude 13.546 euroko batez besteko kostuaren gainetik.

- Hona 50.000 euroko batez besteko kostuaren gainetik dauden udalak:

- Ondoko entitateek, pentsiodunak izaki, ez dute kargurik montepiaren defizita dela eta:

Entitatea	Pentsiodunak
Nafarroako Errege Bardeako Komunitatea	7
Zaraitzu ibarreko Batzar Nagusia	2
Ameskoako Limitaciones mendiko Batzarrea	1
Aurizberri	1
Gazteluberri	1

- Montepio berekia duten udalen kasuan, Iruñea erabat salbuetsirik dago, eta Tuterak, berriz, sei pentsiodun ditu, ez du montepioari atxikiriko jarduneko funtzionarioirik eta 363.804 euroko kargua du.

Tafallan 11 pentsiodun daude, montepioari atxikiriko funtzionario bat dago eta 248.030 euroko ekarpena egiten dio defizitari.

Laburbilduz, hain emaitza anitzak atera dira, batez ere, ez zaiolako funtzionario gehiago atxiki sistemari, eta urte askoan indarrean iraun badezake ere, sistema hori iraungi egingen da. Hortaz, esan daiteke aldatu egin direla sistemaren oinarritzko funtzionamendu-baldintzak, montepioari atxikitako langileak eta gizarte segurantzari atxikitakoak daudelako aldi berean. Kontuan hartzekoa da orobat osasun arloko udal funtzionarioak Nafarroako Gobernuako funtzionario izatera igaro izana.

Hori dela eta, gure gomendioa da azter dadila ea defizitak eragindako zama zuzentasunez ari den banatzen toki entitateen artean, eta azter dadila zer hautabide izan daitezkeen.

Txosten hau auditore Jesús Muruzabal Lerga jaunak proposatuta egin da, bera izan baita lan honen arduraduna, araudi indardunak ezarritako tramiteak bete ondoren.

Iruñean, 2005eko urtarrilaren 17an

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

1. eranskina. Udal montepioaren kostua, kargu osoaren araberakoa

Entitatea	Pentsiodunak, guztira	Kargua, guztira	Pasiboko kostua	Funtzionarioak	Kuotak
Burlata	40	1.219.362,62	30.484,07	32	42.583,66
Barañain	1	929.900,61	929.900,61	17	28.675,59
Lizarra	61	887.055,18	14.541,89	25	33.104,38
Atarrabia	11	672.893,71	61.172,16	18	23.915,40
Altsasu	22	465.306,43	21.150,29	12	16.880,24
Baztan	25	455.273,23	18.210,93	12	15.278,54
Corella	31	439.536,04	14.178,58	11	15.787,39
Antsoain	1	389.237,03	389.237,03	7	10.932,05
Tutera	6	363.804,87	60.634,15	0	0,00
Cortes	14	336.100,10	24.007,15	11	10.274,58
Cintruénigo	27	320.247,73	11.861,03	8	11.165,92
Zizur Nagusia	0	295.211,66	Pentsiodunik gabe	0	0,00
Azkoien	17	291.440,66	17.143,57	7	8.987,55
Cascante	25	286.924,14	11.476,97	9	13.188,77
San Adrián	13	279.774,16	21.521,09	7	6.972,24
Berriozar	5	279.462,33	55.892,47	4	4.610,61
Zangoza	18	257.483,19	14.304,62	6	7.210,69
Mendabia	14	255.721,21	18.265,80	7	8.872,98
Tafalla	11	248.030,25	22.548,20	1	620,40
Uharte	9	226.473,65	25.163,74	6	8.877,28
Ribaforada	6	221.711,79	36.951,97	8	9.214,66
Erriberri	18	210.985,95	11.721,44	7	10.037,35
Funes	14	207.409,18	14.814,94	7	8.695,97
Azagra	12	202.816,07	16.901,34	5	6.598,12
Murchante	11	191.820,10	17.438,19	6	7.783,80
Lodosa	11	191.358,82	17.396,26	5	5.973,89
Castejón	17	187.995,49	11.058,56	5	5.633,82
Faltzes	16	184.740,79	11.546,30	6	7.586,51
Bera	11	182.707,06	16.609,73	4	5.026,38
Arguedas	11	170.495,31	15.499,57	6	7.464,49
Milagro	15	166.282,13	11.085,48	5	8.666,97
Aranguren ibarra	7	165.665,32	23.666,47	2	2.940,05
Villafranca	20	161.405,27	8.070,26	5	7.354,47
Viana	12	153.919,57	12.826,63	3	3.677,67
Noain (Elortzibar)	3	151.799,79	50.599,93	3	4.104,81
Fitero	13	149.443,13	11.495,63	4	3.963,45
Egues	6	147.469,07	24.578,18	3	3.175,90
Valtierra	14	145.158,43	10.368,46	5	5.943,05
Ablitas	11	144.790,65	13.162,79	6	5.702,57
Lesaka	15	141.103,77	9.406,92	4	4.921,64
Leitza	10	138.299,80	13.829,98	3	3.390,12
Agoitz	7	126.948,59	18.135,51	4	5.640,64
Cadreita	6	121.023,71	20.170,62	3	3.920,48
Caparroso	13	119.476,50	9.190,50	4	5.852,37
Gares	9	112.508,77	12.500,97	3	3.607,32
Andosilla	10	107.464,94	10.746,49	3	2.595,21

Entitatea	Pentsiodunak, guztira	Kargua, guztira	Pasiboko kostua	Funtzionarioak	Kuotak
Buñuel	13	106.731,14	8.210,09	3	2.892,31
Martzilla	8	105.233,54	13.154,19	2	3.073,81
Sartaguda	7	102.597,44	14.656,78	4	5.541,78
Santakara	5	95.098,08	19.019,62	4	5.335,10
Berriobeiti	1	91.690,07	91.690,07	2	2.212,16
Zarrakaztelu	12	88.506,14	7.375,51	1	1.259,91
Lerin	9	86.761,25	9.640,14	3	4.821,11
Arroitz	12	71.187,47	5.932,29	2	2.733,38
Murillo el Fruto	7	71.147,39	10.163,91	3	3.582,05
Orkoien	0	70.332,90	Pentsiodunik gabe	1	1.341,93
Beriain	0	69.978,49	Pentsiodunik gabe	0	0,00
Artaxoa	7	65.295,00	9.327,86	2	2.011,29
Cabanillas	9	63.960,76	7.106,75	2	2.709,11
Larraga	12	62.781,61	5.231,80	2	3.085,05
Doneztebe	5	60.993,23	12.198,65	2	2.853,38
Irunberri	7	59.774,01	8.539,14	2	2.915,70
Ezkabarte	5	59.244,92	11.848,98	1	1.026,80
Oltza	4	58.692,82	14.673,21	2	2.927,21
Fustiñana	14	57.395,23	4.099,66	0	0,00
Aiegi	0	55.955,33	Pentsiodunik gabe	2	2.949,88
Etxarri Aranatz	9	55.853,97	6.206,00	1	1.671,68
Irurtzun	0	51.391,17	Pentsiodunik gabe	1	1.671,68
Mendigorría	10	50.273,31	5.027,33	1	1.086,40
Miranda de Arga	7	50.043,28	7.149,04	2	2.849,59
Villatuerta	4	49.284,14	12.321,04	1	1.216,49
Galar	5	48.496,08	9.699,22	1	1.671,68
Urantzia	9	47.529,90	5.281,10	1	539,56
Arakil	9	46.914,72	5.212,75	2	2.743,59
Goizueta	5	45.695,50	9.139,10	1	1.170,30
Uharte Arakil	3	44.821,34	14.940,45	2	2.751,47
Berbintzana	3	43.763,16	14.587,72	1	1.030,04
Kaseda	16	41.594,84	2.599,68	2	2.976,84
Zizur	6	40.119,16	6.686,53	1	1.671,68
Lekunberri	0	39.501,46	Pentsiodunik gabe	1	1.147,04
Olazti	10	39.198,99	3.919,90	0	0,00
San Martin Unx	9	36.999,95	4.111,11	1	874,84
Ultzama	4	36.990,60	9.247,65	0	0,00
Allin	4	35.912,82	8.978,21	1	1.145,04
Urdazubi	3	35.619,70	11.873,23	1	1.119,48
Esteribar	4	35.587,35	8.896,84	2	2.489,54
Deierri	5	34.874,22	6.974,84	0	0,00
Erronkari	2	34.055,42	17.027,71	1	1.010,16
Ameskoabarren	4	32.417,46	8.104,37	2	2.171,16
Sesma	11	31.906,69	2.900,61	1	1.671,68
Zirauki	6	28.252,46	4.708,74	2	2.754,84
Monteagudo	10	26.546,73	2.654,67	1	1.671,68
Carcar	6	25.718,59	4.286,43	1	1.671,68
Lakuntza	3	25.097,48	8.365,83	0	0,00
Larraun	7	24.706,41	3.529,49	0	0,00

Entitatea	Pentsiodunak, guztira	Kargua, guztira	Pasiboko kostua	Funtzionarioak	Kuotak
Allo	7	24.660,39	3.522,91	1	1.671,68
Arbizu	4	22.152,96	5.538,24	0	0,00
Oibar	8	21.324,80	2.665,60	1	1.671,68
Oteitza	4	21.255,79	5.313,95	0	0,00
Zubieta	2	20.202,28	10.101,14	1	254,29
Obanos	4	20.128,58	5.032,15	1	1.834,06
Fontellas	1	18.495,30	18.495,30	0	0,00
Etxalar	1	18.472,30	18.472,30	1	1.671,68
Melida	9	17.529,12	1.947,68	1	1.671,68
Itza	3	17.345,10	5.781,70	0	0,00
Erro	7	17.276,08	2.468,01	0	0,00
Deikaztelu	5	16.010,86	3.202,17	1	1.671,68
Bertizarana	1	15.849,83	15.849,83	0	0,00
Basaburua	0	15.711,80	Pentsiodunik gabe	1	1.671,68
Sunbilla	3	15.182,71	5.060,90	0	0,00
Murillo el Cuende	2	15.113,69	7.556,85	0	0,00
Otsagabia	5	15.067,68	3.013,54	0	0,00
Pitillas	3	14.262,55	4.754,18	0	0,00
Urdiain	2	14.262,55	7.131,28	1	1.671,68
Igantzi	3	14.147,52	4.715,84	0	0,00
Arantza	4	13.434,39	3.358,60	0	0,00
Araitz	4	13.365,39	3.341,35	0	0,00
Tiebas-Muru Artederreta	0	12.537,24	Pentsiodunik gabe	1	1.671,68
Barasoain	2	12.215,19	6.107,60	0	0,00
Abartzuza	4	11.824,10	2.956,03	0	0,00
Añorbe	2	11.732,10	5.866,05	0	0,00
Txulapain	3	11.295,01	3.765,00	1	1.496,17
Izaba	3	11.203,00	3.734,33	0	0,00
Ituren	0	10.857,94	Pentsiodunik gabe	0	0,00
Etxauri	1	10.581,88	10.581,88	1	1.671,68
Gesalatz	2	10.420,85	5.210,43	1	1.671,68
Ergoiena	3	10.351,85	3.450,62	0	0,00
Garinoain	0	10.190,82	Pentsiodunik gabe	1	869,70
Luzaide	3	10.190,82	3.396,94	0	0,00
Donamaria	0	9.523,71	Pentsiodunik gabe	0	0,00
Anue	0	9.454,68	Pentsiodunik gabe	0	0,00
Imotz	1	9.339,67	9.339,67	0	0,00
Antzin	2	9.040,62	4.520,31	0	0,00
Urrotz	0	8.833,57	Pentsiodunik gabe	1	1.671,68
Mañeru	3	8.787,57	2.929,19	0	0,00
Iturmendi	2	8.764,57	4.382,29	0	0,00
Bargota	3	8.626,54	2.875,51	0	0,00
Ziordia	3	8.488,51	2.829,50	0	0,00
Ezkaroze	1	8.350,49	8.350,49	0	0,00
Iguzkitza	3	8.212,46	2.737,49	0	0,00
Eulate	2	8.028,43	4.014,22	0	0,00
Mendaza	6	7.982,42	1.330,40	0	0,00
Ledea	7	7.913,41	1.130,49	0	0,00
Elo	5	7.752,39	1.550,48	1	1.671,68

Entitatea	Pentsiodunak, guztira	Kargua, guztira	Pasiboko kostua	Funtzionarioak	Kuotak
Betelu	3	7.706,38	2.568,79	0	0,00
Bakaiku	3	7.660,36	2.553,45	0	0,00
Odieta	1	7.660,36	7.660,36	0	0,00
Aberin	3	7.522,35	2.507,45	1	1.671,68
Auritz	4	7.430,33	1.857,58	1	1.573,16
Puiu	1	7.361,32	7.361,32	0	0,00
Beire	2	7.131,27	3.565,64	0	0,00
Longida	2	7.062,26	3.531,13	0	0,00
Olo	2	7.016,25	3.508,13	1	1.671,68
Metauten	2	6.878,23	3.439,12	0	0,00
Areso	0	6.809,21	Pentsiodunik gabe	0	0,00
Muruzabal	0	6.740,20	Pentsiodunik gabe	0	0,00
Urraulbeiti	1	6.648,18	6.648,18	0	0,00
Artzi	0	6.326,13	Pentsiodunik gabe	1	1.671,68
Murieta	0	6.280,12	Pentsiodunik gabe	0	0,00
Lizoain	1	6.234,11	6.234,11	0	0,00
Leotz	1	6.142,09	6.142,09	0	0,00
Labaien	1	6.073,09	6.073,09	0	0,00
Lezaun	1	6.050,07	6.050,07	0	0,00
Esa	2	5.981,06	2.990,53	0	0,00
Uxue	6	5.451,97	908,66	0	0,00
Burgi	1	5.428,97	5.428,97	1	1.671,68
Jaurrieta	2	5.405,97	2.702,99	0	0,00
Atetz	1	5.290,94	5.290,94	0	0,00
Ibargoiti	2	5.290,94	2.645,47	0	0,00
Zugarramurdi	0	5.267,94	Pentsiodunik gabe	0	0,00
Orbaitzeta	4	5.221,93	1.305,48	0	0,00
Untziti	0	5.198,92	Pentsiodunik gabe	0	0,00
Elgorriaga	0	5.175,93	Pentsiodunik gabe	0	0,00
Uztarroze	2	5.129,91	2.564,96	0	0,00
Aras	1	5.106,91	5.106,91	0	0,00
Eneritz	0	4.991,90	Pentsiodunik gabe	1	1.685,70
Zare	1	4.968,88	4.968,88	0	0,00
Lana	2	4.945,88	2.472,94	0	0,00
Elizagorria	2	4.761,85	2.380,93	0	0,00
Barillas	0	4.738,85	Pentsiodunik gabe	0	0,00
Goñi	1	4.692,84	4.692,84	0	0,00
Ezkurra	1	4.600,82	4.600,82	1	1.671,68
Nabaskoze	3	4.600,82	1.533,61	0	0,00
Oroz-Betelu	0	4.577,82	Pentsiodunik gabe	0	0,00
Garralda	2	4.485,80	2.242,90	0	0,00
Biurrun-Olkotz	1	4.462,80	4.462,80	0	0,00
Oloritz	0	4.439,79	Pentsiodunik gabe	0	0,00
Arellano	3	4.416,79	1.472,26	0	0,00
Urrotz	2	4.301,77	2.150,89	0	0,00
Olaibar	0	4.255,76	Pentsiodunik gabe	0	0,00
Zúñiga	1	4.209,75	4.209,75	0	0,00
Garde	1	4.140,74	4.140,74	0	0,00
Urraulgoiti	1	4.094,73	4.094,73	0	0,00

Entitatea	Pentsiodunak, guztira	Kargua, guztira	Pasiboko kostua	Funtzionarioak	Kuotak
Eratsun	1	4.002,71	4.002,71	0	0,00
Itzagaondoa	1	3.956,70	3.956,70	0	0,00
Uterga	0	3.933,70	Pentsiodunik gabe	0	0,00
Zabaltza	1	3.933,70	3.933,70	0	0,00
Torres del Rio	2	3.887,69	1.943,85	0	0,00
Irañeta	0	3.795,67	Pentsiodunik gabe	0	0,00
Morentin	1	3.772,67	3.772,67	0	0,00
Espronceda	1	3.726,67	3.726,67	0	0,00
Eslaba	3	3.634,64	1.211,55	1	1.671,68
Galipentzu	3	3.634,64	1.211,55	0	0,00
Abaurregaina	1	3.611,64	3.611,64	0	0,00
Adios	0	3.542,63	Pentsiodunik gabe	0	0,00
Erromantzatua	1	3.542,63	3.542,63	0	0,00
Oitz	0	3.473,61	Pentsiodunik gabe	1	1.671,68
Ukar	0	3.335,60	Pentsiodunik gabe	0	0,00
Hiriberri-Aezkoa	0	3.312,59	Pentsiodunik gabe	0	0,00
Larraona	0	3.266,59	Pentsiodunik gabe	0	0,00
Arano	0	3.243,58	Pentsiodunik gabe	0	0,00
Untzue	1	3.197,57	3.197,57	0	0,00
Lukin	2	3.151,56	1.575,78	0	0,00
Torralba del Rio	4	3.105,56	776,39	0	0,00
Villamayor de Monjardin	0	3.105,56	Pentsiodunik gabe	0	0,00
Garaioa	2	2.898,52	1.449,26	0	0,00
Saldias	2	2.898,52	1.449,26	0	0,00
Lapoblación	1	2.883,15	2.883,15	0	0,00
Lantz	1	2.852,51	2.852,51	0	0,00
Legaria	2	2.829,50	1.414,75	0	0,00
Desojo	0	2.806,51	Pentsiodunik gabe	0	0,00
Galoze	0	2.760,49	Pentsiodunik gabe	0	0,00
Belaskoain	0	2.737,49	Pentsiodunik gabe	0	0,00
Bidankoze	1	2.645,48	2.645,48	0	0,00
Bidaurreta	0	2.622,47	Pentsiodunik gabe	0	0,00
Aguilar Kodeskoa	5	2.553,45	510,69	0	0,00
Legarda	0	2.553,45	Pentsiodunik gabe	0	0,00
Cabredo	1	2.530,45	2.530,45	0	0,00
Santsol	2	2.530,45	1.265,23	0	0,00
Jaitz	3	2.507,45	835,82	0	0,00
Urzainki	1	2.507,45	2.507,45	0	0,00
Mues	2	2.484,45	1.242,23	0	0,00
Tulebras	2	2.461,44	1.230,72	0	0,00
Genevilla	0	2.415,43	Pentsiodunik gabe	0	0,00
Arruazu	0	2.392,43	Pentsiodunik gabe	0	0,00
Artazu	1	2.369,42	2.369,42	0	0,00
Espartza	1	2.346,42	2.346,42	1	1.671,68
Abaigar	0	2.231,40	Pentsiodunik gabe	0	0,00
Barbarin	0	2.162,39	Pentsiodunik gabe	0	0,00
Girgillao	0	2.162,39	Pentsiodunik gabe	0	0,00
Etaio	0	2.139,39	Pentsiodunik gabe	0	0,00
El Busto	0	2.001,36	Pentsiodunik gabe	0	0,00

Entitatea	Pentsiodunak, guztira	Kargua, guztira	Pasiboko kostua	Funtzionarioak	Kuotak
Aranaratxe	2	1.955,34	977,67	0	0,00
Orisoain	0	1.955,34	Pentsiodunik gabe	0	0,00
Armañanzas	0	1.863,33	Pentsiodunik gabe	0	0,00
Sartze	0	1.817,33	Pentsiodunik gabe	0	0,00
Lerga	1	1.794,31	1.794,31	0	0,00
Xabier	0	1.771,32	Pentsiodunik gabe	0	0,00
Oko	0	1.748,31	Pentsiodunik gabe	0	0,00
Ziritza	0	1.656,30	Pentsiodunik gabe	0	0,00
Aria	0	1.564,28	Pentsiodunik gabe	0	0,00
Etxarri	0	1.541,28	Pentsiodunik gabe	0	0,00
Gorza	0	1.518,27	Pentsiodunik gabe	0	0,00
Marañon	0	1.449,26	Pentsiodunik gabe	0	0,00
Aribe	1	1.426,25	1.426,25	0	0,00
Ezporogui	0	1.426,25	Pentsiodunik gabe	0	0,00
Piedramillera	1	1.380,25	1.380,25	0	0,00
Mirafuentes	0	1.334,24	Pentsiodunik gabe	0	0,00
Orbara	0	1.311,23	Pentsiodunik gabe	0	0,00
Tirapu	0	1.311,23	Pentsiodunik gabe	0	0,00
Nazar	0	1.288,23	Pentsiodunik gabe	0	0,00
Orontze	0	1.265,22	Pentsiodunik gabe	0	0,00
Olexua	0	1.242,22	Pentsiodunik gabe	0	0,00
Leatxe	2	1.104,19	552,10	0	0,00
Itzaltzu	0	1.081,19	Pentsiodunik gabe	0	0,00
Azuelo	1	1.058,20	1.058,20	0	0,00
Aburrepea	0	966,18	Pentsiodunik gabe	0	0,00
Sorlada	0	966,18	Pentsiodunik gabe	0	0,00
Orreaga	0	598,10	Pentsiodunik gabe	0	0,00
Petilla de Aragón	2	391,43		0	0,00
Sakanako mankomunitatea				1	1.671,68
Guztira	1.244	16.851.922,35		416	554.278,44

Atarrabiako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2004ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko otsailaren 20an eginiko bilkuran, erabaki zuen Comptos Ganberak Atarrabiako Udalari buruz egindako fiskalizazio txostena, 2004ko ekitaldikoa, argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2006ko otsailaren 20an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Atarrabiako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2004ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (19. or.).
- II. Helburua (19. or.).
- III. Norainokoa eta mugak (20. or.).
- IV. Iritzia (20. or.).
 - IV.1. 2004ko aurrekontuaren likidazioari dagokionez (20. or.).
 - IV.2 2004ko abenduaren 31ko ondare-egoe-raren agerpena (20. or.).
 - IV.3 Legezkotasuna (20. or.).
 - IV.4 2004ko abenduaren 31ko finantza-egoera (21. or.).

IV.5 Informazio osagarria eta azalpen oharrak (21. or.).

IV.6 2003ko txostenaren gomendioen jarraipena (21. or.).

IV.7 Ondorio orokorra (21. or.).

V. Iruzkina, ondorioak eta gomendioak (21. or.).

V.1 Administrazio-kontratazioa (21. or.).

V.2 Kudeaketari buruzko bestelako gomendioak (22. or.).

1.eranskina. Dirusarrerak eta gastuak kapitulu ekonomikoen arabera (23. or.).

2.eranskina. Cálculo del resultado presupuestario (24. or.).

3.eranskina. Estado de remanente de tesorería a 31 de diciembre de 2004 (24. or.).

4.eranskina. .eranskina. Ratios 2004 (25. or.).

5.eranskina. Balance a 31-12-2004 (26. or.).

I. SARRERA

Atarrabiako Udalak 10.179 biztanle ditu eta, bere erakunde autonomoekin batera, hauexek ditu zifra adierazgarrienak 2004ko abenduaren 31n:

(euroak, milakotan)

Entitatea	Aitorturiko betebeharrak	Aitorturiko eskubideak	Langileak, 2003-12-31n 31-12-2004
Udala	9.006	8.551	95
Kirol Patronatua	886	896	18
Guztira	9.571	9.126	113

Udala sarturik dago Iruñerriko Mankomunitatean, eta haren bidez ematen ditu uraren ziklo integralaren zerbitzuak, hiri hondakin solidoen kudeaketa- eta tratamendu-zerbitzuak eta eskualdeko hiri-garraiokoak. Ezkabarte ibarrarekin batera oinarritzko gizarte zerbitzuen mankomunitatean ere badago, eta mankomunitate horren bidez ematen ditu zerbitzu horiek.

II. HELBURUA

Nafarroako toki administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari, Nafarroako toki ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Comptos Ganberari buruzko abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, fiskalizatu egin ditugu bai Atarrabiako Udaleko kudeaketa

ekonomiko eta finantzarioa, bai eta udal horren nahiz haren erakunde autonomoaren 2004ko ekitaldiko gastu eta dirusarreraren aurrekontuen bete-tzea ere.

Toki entitateari aplikatzekoa den araubide juridikoa, funtsean, honako hauek osatzen dute: aipatutako legeak, Toki araubidearen oinarriak arautzeko apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Nafarroako Administrazio publikoen zerbitzuko langileen estatutuak, administrazio-kontratazioari eta hirigintza-kudeaketari buruzko araudiak eta Nafarroako toki entitateari oro har aplikatzekoa den gainontzeko araudiak.

Kontabilitatearen eta aurrekontuen arloan, araubide juridikoa ezartzen dutenak 1998ko irailaren 21eko 270, 271 eta 272 foru dekretuak dira, zeinak Nafarroako toki administrazioarako aurrekontu eta gastu publikoari, aurrekontu-egiturari eta kontabilitateari buruzkoak baitira.

Txostenaren helburua da honako hauei buruzko gure iritzia adieraztea:

a) Atarrabiako Udalaren eta haren erakunde autonomoaren 2004ko ekitaldiko aurrekontuaren garapena eta betetzea.

b) 2004ko abenduaren 31ko ondare-egoera agertzea, aplikatzekoak diren kontabilitate-printzipioei jarraituz.

c) Jarduera ekonomiko-finantzarioa legezkotasun-printzipioari lotua egon ote den.

d) Udalaren eta haren erakunde autonomoaren 2004ko abenduaren 31ko finantza-egoera.

e) Atarrabiako Udalaren eta haren erakunde autonomoaren finantzen egoera-orrien informazio osagarrian eta azalpen oharretan ageri diren datuen eta iruzkinen arrazoizkotasuna eta koherentzia.

f) Egin zuen azken fiskalizazio-txostenean, zeina 2003ko ekitaldiari buruzkoa baita, Comptos Ganberak eman zituen gomendioak noraino bete diren.

III. NORAINOKOA ETA MUGAK

Comptos Ganberak, bere jarduketa programa-rekin bat, Atarrabiako Udalaren (aurrerantzean, udala) finantzen egoera-orrien fiskalizazioa egin du; egoera-orri horietan sarturik daude 2004ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioaren egoera-orria, aurrekontu-emaiza eta diruzaintza-gerakina, eta 2004ko abenduaren 31ko egoeraren balantzea.

Udalak kontabilitate publikoari buruzko plan orokorra ezarrita dauka.

Beraz, eginiko lanak haxe izan du arretagai: dirusarrera eta gastuei buruzko kapitulu ekonomikoak eta ondare-masak berrikustea, antolamenduari, kontabilitateari eta barne-kontrolari dagozkion hainbat puntu aztertuz.

Atarrabiako Udalak ez du egin 2004ko ekitaldiari buruzko oroitidazkia. Ez dago legez behartuta oroitidazkia egitera, baina oroitidazkirik ez dagoenez ezin izan dugu eman hari buruzko iritzirik.

Lana egin dugu Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako fiskalizazio printzipioei eta arauari jarraituz eta aurreko urteetako lanetan agerian gelditu diren baldintzen eta arazoaren arabera beharrezkotzat jo ditugun proba guztiak aplikatuz.

Txostenean daude, halaber, udalaren antolamendua, barne-kontrola, eraginkortasuna eta efizientzia hobetzeko beharrezkotzat jotzen ditugun iruzkin eta gomendioak.

Udaleko eta haren erakunde autonomoetako langileei eskerrak ematen dizkiegu lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik.

IV. IRITZIA

Egin dugun fiskalizazioaren barruan, Atarrabiako Udalaren eta bere erakunde autonomoaren finantzen egoera-orriak, 2004ko abenduaren 31n amaituriko urtebeteko ekitaldikoak, aztertu ditugu. Egoera-orri horiek udalaren ardurapean egin dira.

IV.1. 2004ko AURREKONTUAREN LIKIDAZIO-ARI DAGOKIONEZ

Erantsi dugun 2004ko aurrekontuaren likidazioaren egoera-orriak behar bezala agertzen du, garrantzizkoak diren alderdi guztiei dagokienez, eginiko jarduera eta 2004ko abenduaren 31ko aurrekontu-egoera.

IV.2. 2004ko ABENDUAREN 31ko ONDARE-EGOERAREN AGERPENA

2004ko abenduaren 31ko egoera-balantzeak behar bezala agertzen du udalaren finantza eta ondare egoera, salbu eta ondasunen (ibilgetua) inbentarioaren kasuan, gaurkoturik ez dagoelako –1995ekoa da–.

IV.3. LEGEZKOTASUNA

Oro har, udalaren jarduera ekonomiko-finantzarioa legezkotasun-printzipioari jarraituz egin da.

IV.4. 2004ko ABENDUAREN 31ko FINANTZA-EGOERA

Hasierako aurrekontua 8,4 milioi eurokoa da. Behin betikoa 9,4 milioi eurokoa. Gastuen betetze-maila ehuneko 95 da, eta dirusarrerena, ehuneko 90.

Azken horien artean, zuzeneko zergen betetzea ehuneko 102koa izan zen, eta zeharkakoena ehuneko 128koa; bi kapitulu horiek ekitaldiko dirusarreraren ehuneko 25 egiten dute. Udalaren baliabideen ehuneko 40 transferentzietatik datoz.

Ekitaldia ixtean defizit doitua 165.107 eurokoa zen. 2004ko abenduaren 31n, zorra 3,5 milioi eurokoa zen, eta ekitaldi horretan 64.400 euroko mailegu bat sinatu zen. Funts horiek gehienbat inbertsioak finantzatzeko erabiliko dira, batez ere igerileku estaliko obra.

Atarrabiako Udalak 2004ko abenduaren 31n duen finantza-egoeraren ezaugarriak dira: ehuneko 5,65eko zorpetze-maila, ehuneko 0,85eko aurrezki garbia eta 53.654 euroko diruzaintzako gerakina.

Udalerriaren ezaugarriak direla-eta, baliteke etorkizunean murriztea hirigintza arloko jarduerekin zerikusia duten dirusarreraren kontusail batzuk, eta hori udalak kontuan hartu behar du, aurrerantzean eginen dituen ekintzak aztertzerakoan.

IV.5. INFORMAZIO OSAGARRIA ETA AZALPEN OHARRAK

Txosteneko III. atalean adierazi dugun legez, ez zaigu eman 2004ko ekitaldiari buruzko oroitidazkia, eta hori dela-eta ezin dugu eman hari buruzko iritzirik.

IV.6. 2003ko TXOSTENAREN GOMENDIOEN JARRAIPENA

Oro har, esan daiteke 2003ko ekitaldiari buruzko txosteneko administrazio- eta kontabilitate-izae-rako gomendio nagusiak aintzat hartuak izan direla, eta horiek behar bezala aplikatzeko neurri egokiak hartzen ari direla.

IV.7. ONDORIO OROKORRA

Laburbilduz, ondorio orokor gisa esan dezakegu udalak behar bezala kudeatzen dituela bere aurrekontuak, nahiz eta hobetu egin beharko litzukeen zenbait prozedura, kontabilitateko eta barne-kontrolako prozedura batzuk hain zuzen.

Beraz, eta prozedura horiek hobetze aldera, udalak honela jokatu behar du:

- *Barne araubideari buruzko erregelamendu bat egin behar du, horren bidez definitu eta banatzeko udaleko organo exekutiboen eskumenak eta erakunde autonomoarekiko harremanak.*

- *Udalaren jabetzako ondasunen inbentarioa egin behar du. Egoera-balantzeko kontabilitate-saldook inbentario hori izan beharko dute oinarri.*

- *Udal inbentarioaren etengabeko gaurkotzea eta hura kontabilitatearekin konektatua egotea lortzeko prozedurak taxutu eta aplikatu behar ditu.*

- *Bideragarritasun ekonomikoari buruzko azterlanak egin behar ditu, zeinetan ikertuko baitira udal zerbitzuak, asmoan dauden inbertsioak eta udalak dauzkan finantzabideak.*

- *Oroitidazkia egin behar du, finantza-egoera orrien beste osagai bat den aldetik.*

V. IRUZKINAK, ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

V.1. ADMINISTRAZIO-KONTRATAZIOA

Atal honetan xeheaturik agertuko ditugu, alde batetik, hornidurak erosi eta zerbitzuak emateari buruzko alderdiak eta, bestalde, inbertsioak.

V.1.1. Hornidurak erosi eta zerbitzuak ematea

1.533.000 euro bete ziren ekitaldian. Gure azterketan ondoko atalak aztertu ditugu:

Azalpena	Betetako zenbatekoa
Lurrak eta ondasun naturalak	29.060
Udaletxeko fatxada garbitzea	6.708
Amaiur eskolako pintura	4.266
Animsaren fakturak	48.706
Bestelako ibilgetu materialak	6.800
Bulegoko material arrunta	32.754
Bake epaitegiko materiala	30.909
Argindarra	118.949
Ura	44.149
Erregaiak	54.808
Jantziak	16.072
Haurtzaindegiko elikagaiak	35.766
Telefonoa	31.435
Aseguruak	37.582
Herriko festak	382.529
Kultur jarduerak	116.156
Ikastaroak	75.515
Guztira	1.072.164

Gainontzeko gastuak munta txikiko fakturak dira.

Gure azterketaren arabera, udalak behar bezala kudeatzen du atal hori. Hala ere:

Gure gomendioa da kontratu-agiri bidez formalizatu daitezela hirugarrenetik harreman guztiak, baldin eta zenbatekoa dela-eta legeak horretara behartzen badu.

V.1.2 Inbertsioak

2.768.000 euro bete dira.

Kontusailik handiena -2.165.000 euro- igerileku estaliko obren zenbait ziurtagiriri dagokie. Horren adjudikazio espediente aurreko ekitaldian aztertu genuen.

Ondoko kontratazio espedienteak ere aztertu ditugu: Atargi ikastetxe publikoa hobetzeko obrena (105.000 euro) eta zinema izandakoa zaharberri-tzea (152.000 euro).

Egin dugun azterketarekin bat, udalak behar bezala betetzen du Kontratuei buruzko Foru Legea. Hala ere:

Gure gomendioa da kontratazio espediente guztietan erantsi daitezela txosten juridikoak eta kontu-hartzaitzakoak, beharrezkoak baitira, bai eta adjudikazioen publizitatearen justifikazioa ere.

V.2. KUDEAKETARI BURUZKO BESTELAKO GOMENDIOAK

Jarraian azaltzen dira, kudeaketa-arlo garrantzitsuenetako bakoitzerako, gure aburuz udalak bere egin behar dituen gomendio nagusiak, bere antolaketa-sistemak, prozedurak, kontabilitatea eta barne-kontrola hobetzeko.

Kasu batzuetan, gomendioak 2005eko ekitaldian betetzen ari dira.

V.2.1. Antolaketa orokorra

- *Barne araubideari buruzko erregelamendu bat egitea, horren bidez definitu eta banatzeko udaleko organo exekutiboaren eskumenak eta erakunde autonomoaren harremanak.*

- *Oinarrizko kudeaketa-prozedurak idatziz jartzeari, eta exekuzio-faseetarako arduradunak identifikatu eta esleitzea.*

V.2.2 Inbentarioa-ibilgetua

- *Udalaren jabetzako ondasunen inbentarioa egin behar du. Egoera-balantzeko kontabilitate-saldoek inbentario hori izan beharko dute oinarri.*

- *Udal inbentarioaren etengabeko gaurkotzea eta hura kontabilitatearekin konektatua egotea lortzeko prozedurak taxutu eta aplikatzea.*

- *Ibilgetua osatzen duten kontabilitate-saldoak aztertu eta garbitzea, udalaren ondasunak ongi isla ditzaten.*

V.2 3. Langileak

- *Ekitaldi bukaerako saldoen gaineko berrazterketak sistematikoki aplikatzea eta aldian-aldian koadratzea kontabilitatea eta nominen nahiz atxiki-pen-aitortuen laburpenak.*

- *Nominen aplikazio informatikoa egokitzea, laburpen egokiak lortzeko, kontabilitate orokorreko programara automatikoki transferitu daitezkeenak, eta horrela bikoizketak, gerora eskuz eginiko kontabilizazioa eta egin daitezkeen akatsak saihesteko.*

V.2.4. Tributu bidezko dirusarrerak eta prezio publikoak

- *Gure gomendioa da aldiro kontabilizatzeari dirusarrera guztiak, kontabilitatea kudeaketarako tresna egokia izan dadin.*

- *Prozedurak taxutu eta sistematikoki aplikatzea dirusarreraren kudeaketako datuak egiaztatu ahal izateko, eta datu horiek beren kontabilitate-erregistroekin eta diru-bilketakoekin bat etorrazazi eta alderatzea, horrela kontabilitate- eta aurrekontu-informazioaren segurtasun eta fidagarritasun handiagoak lortzeko.*

- *Tasa eta prezio publikoek jasaten dituzten kostuei buruzko azterlanak aldizka gaurkotzea.*

V.2.5. Alderdi orokorrak

- *Gastuak eta dirusarrerak epigrafe egokien barrenean kontabilizatzeari, eta sortzapenaren printzipioa behar bezala aplikatzea.*

- *Aurrekontuak lege ezarritako epeetan onestea.*

V.2 6. Patronatuak

- *Aztertzea Kirol Patronatua dezentralizaturiko udal zerbitzu bilakatzeko aukera, munta txikiko zenbatekoen aurrekontua kudeatzen baitu.*

Francisco Javier Sesma Masa auditorea arduratu da lan honetaz, eta hark proposatuta eman da txosten hau, araudi indardunak ezarritako tramiteak bete ondoren.

Iruñean, 2006ko otsailaren 15ean

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

I. eranskina.- Dirusarrerak eta gastuak kapitulu ekonomikoen arabera

Dirusarrerak - kapitulu ekonomikoak

Dirusareren kapituluak	Hasierako kredituak	Aldaketak	Behin betiko aurreikuspenak	Aitorturiko eskubide garbiak	Betetakoa (%)	Kitatua, guztira	Kitatua, %	Kobratzeko dagoena
1. Zerga zuzenak	1.880.060	0	1.880.060	1.921.620	102,21	1.739.016	90	182.604
2. Zeharkako zergak	200.000	0	200.000	255.495	127,75	235.668	92	19.827
3. Tasak, prezio publikoak eta beste dirusarrera batzuk	502.891	79.099	581.990	693.261	119,12	587.141	85	106.120
4. Transferentzia arruntak	3.432.410	56.089	3.488.498	3.418.936	98,01	3.127.514	91	291.422
5.- Ondare dirusarrerak eta herri-ondasunen aprobetxamendua	3.200	0	3.200	1.342	41,93	842	63	500
6. Inbertsio errealak besterentzea	397.293	0	397.293	0	0,00	0		0
7. Adminis. Orokorrak entitateari eginiko transferentzia	878.115	222.329	1.100.444	914.532	83,11	577.152	63	337.380
8. Finantza-aktiboak	18.030	94.000	112.030	0	0,00	0		0
9. Finantza-pasiboak	1.090.822	595.370	1.686.192	1.346.005	79,83	793.553	59	552.452
Dirusarrerak, guztira	8.402.823	1.046.886	9.449.709	8.551.191	90,49	7.060.886	82,57	1.490.305

Gastuak kapitulu ekonomikoen arabera

Gastuen kapituluak	Hasierako kredituak	Aldaketak	Behin betiko aurreikuspenak	Aitorturiko betebeharrak garbiak	Betetakoa (%)	Ordainketak	Kitatua, %	Ordaintzeko dagoena
1. Langileria gastuak	3.574.866	100.079	3.674.945	3.721.294	101,26	3.673.730	99	47.564
2. Gastuak, ondasun arruntetan eta zerbitzuetan	1.440.256	117.027	1.557.283	1.532.783	98,43	1.339.157	87	193.626
3. Finantza-gastuak	118.513	850	119.363	95.205	79,76	95.205	100	0
4. Transferentzia arruntak	632.620	3.318	635.938	627.900	98,74	548.558	87	79.342
6. Inbertsio errealak	2.378.231	814.896	3.193.127	2.768.582	86,70	1.619.226	58	1.149.356
8. Finantza-aktiboak	18.030	0	18.030	0	0,00	0	0	0
9. Finantza-pasiboak	240.306	10.717	251.022	260.283	103,69	260.283	100	0
Gastuak, guztira	8.402.823	1.046.886	9.449.708	9.006.048	95,31	7.536.159	83,68	1.469.889

2. eranskina.- Aurrekontuko emaitzaren kalkulua

Aitorturiko eskubideak 2004	8.551.191,13
(Aitorturiko betebeharrak, 2004)	9.006.047,86
Aurrekontu emaitza	-454.856,73
(Urteko finantzazio-desbideraketa positiboak)	
Urteko finantzazio-desbideraketa negatiboak	289.749,36
Betebeharrak gastu orokorretarako 2003ko diruzaintza-gerakinarekin	
AURREKONTUKO EMAITZA BEHIN BETIKOA	-165.107,37

3. eranskina.- Diruzaintza-gerakinaren egoera-orria 2004ko abenduaren 31n

Kontzeptua	saldoa
Kobratzeko dauden eskubideak, indarreko ekitaldikoak	1.490.305,34
Kobratzeko dauden eskubideak, itxitako ekitaldikoak	598.269,77
Aurrekontuz kanpoko dirusarrerak	22.097,92
Ordainketen itzulketak	668,46
(Dirubilketa zaileko eskubideak)	-492.788,10
(Aplikatzeko dauden dirusarrerak)	-69.280,27
Kobratzeko dauden eskubideak	1.549.273,12
Kobratzeko dauden betebeharrak, indarreko ekitaldikoak	1.469.888,65
Kobratzeko dauden betebeharrak, itxitako ekitaldikoak	42.161,15
Dirusarreraren itzulketak	0,00
(Aplikatzeko dauden gastuak)	-26.394,10
Aurrekontuz kanpoko gastuak	205.290,04
Ordaintzeko dauden betebeharrak.	1.690.945,74
Diruzaintzako funts likidoak	195.326,98
Finantzazio-desbideraketa metatu negatiboak	0,00
Diruzaintza-gerakina, orotara	53.654,36

4. eranskina.- 2004ko ratioak

Adierazlea	2002	2003	2004
Dirusarreraren betetze-maila	% 87,20	% 86,07	% 90,49
Gastuen betetze-maila	% 83,60	% 84,03	% 95,31
Kobrانتzen betetzea	% 87,99	% 86,28	% 82,57
Ordaintzen betetzea	% 89,49	% 91,63	% 83,68
Zorpetze-maila	% 4,78	% 4,85	% 5,65
Zorpetze-muga	% 9,23	% 10,40	% 6,50
Zorpetze ahalmena	% 4,45	% 5,55	% 0,85
Aurrezpen garbia	% 4,45	% 5,55	% 0,85
Langileriaren indizea	% 53,36	% 49,48	% 41,32
Inbertsioaren indizea	% 10,44	% 16,97	% 30,74
Dirulaguntzekiko menpekotasuna	% 34,28	% 37,51	% 49,89
Dirusarrerak biztanleko	605	717	840
Gastuak biztanleko	580	700	885
Dirusarrera arruntak biztanleko	543	615	618
Gastu arruntak biztanleko	503	560	587
Tributuen bidezko dirusarrerak biztanleko	239	290	282
Finantza-zama biztanleko	26	30	35
Zorra biztanleko	261	291	339

Ikus daitekeenez, 2003arekin alderatuz gero, ratorik gehienak bere horretan mantendu dira.

Zorpetzeari lotuta 2003ko ratioak onak dira itxura batean, baina ez dute behar bezala islatzen errealitatea; izan ere, iragan urtean egoera desitxuratu zuten zenbait egitate gertatu ziren. Hona:

- Igerilekuko 1,3 milioi euroko kredituko 68 mila euro soilik zeuden ezarrira.

5. eranskina. Balantzea 2004ko abenduaren 31n

AKTIBOA

Izena	2004	2003	Aldea
1. Ibilgetu materiala.	15.343.589,28	12.890.078,42	2.453.510,86
2. Ibilgetu ez-materiala	454.891,98	315.778,43	139.113,55
3. Erabilera orokorrerako azpiegiturak eta ondasunak	3.307.579,31	3.131.621,51	175.957,80
4. Herri ondasunak	1.577,76	1.577,76	0,00
5. Finantza-ibilgetua	1.467,59	1.467,59	0,00
A) IBILGETUA	19.109.105,92	16.340.523,71	2.768.582,21
7. Izakinak			0,00
8. Zordunak	2.111.341,48	1.743.827,23	367.514,25
9. Finantza-kontuak.	221.759,02	466.084,66	-244.325,64
10. Egoera iragankorrak, aldizkatzeak eragindako doitzeak			0,00
11. Aplikatzeko dagoen emaitza			0,00
K. ZIRKULATZAILEA	2.333.100,50	2.209.911,89	123.188,61
AKTIBOA, GUZTIRA	21.442.206,42	18.550.435,60	2.891.770,82

PASIBOA

Izena	2004	2003	Aldea
1. Ondarea eta erreserbak	10.466.504	10.466.504	0
2. Ekitaldiko emaitza ekonomikoa (etekina)	569.923	472.817	97.106
3. Kapital-dirulaguntzak.	4.614.348	3.766.739	847.609
A FUNTS BEREKIAK	15.650.775	14.706.060	944.715
4. Jasotako prestamenak, maileguak, fidantzak eta	4.004.811	2.919.089	1.085.722
C EPE LUZEKO HARTZEKODUNAK	4.004.811	2.919.089	1.085.722
5. Itxitako aurrekontuetako hartzekodunak eta aurrekontuez kanpokoak	1.717.340	779.785	937.555
6. Aplikatzeko dauden kontusailak eta aldizkatzeak	69.280	145.502	-76.221
D EPE LABURREKO HARTZEKODUNAK	1.786.620	925.286	861.334
PASIBOA, GUZTIRA	21.442.206,42	18.550.435,60	2.891.770,82

Cintruénigoko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2004ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko martxoaren 6an eginiko bilkuran, erabaki zuen Comptos Ganberak Cintruénigoko Udalari buruz egindako fiskalizazio txostena, 2004ko ekitaldikoa, argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2006ko martxoaren 6an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Cintruénigoko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2004ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (27. or.).
- II. Helburua (28. or.).
- III. Norainokoa (28. or.).
- IV. Iritzia (29. or.).
 - IV.1. 2004ko aurrekontuaren likidazioari dago-kionez (29. or.).
 - IV.2. 2004ko abenduaren 31ko ondare-egoe-raren agerpena (29. or.).
 - IV.3. Legezketasuna (29. or.).
 - IV.4. 2004ko abenduaren 31ko ekonomia- eta finantza-egoera (29. or.).

IV.5. Informazio osagarria eta azalpen oharrak (29. or.).

IV.6. 2003ko txostenaren gomendioen jarrai-pena (29. or.).

IV.7. Laburpena eta ondorio nagusia (29. or.).

V. Iruzkina, ondorioak eta gomendioak (30. or.).

V.1. Administrazio-kontratazioa (30. or.).

V.2. Kudeaketari buruzko bestelako gomen-dioak (31. or.).

V.3. Gorabeherak (industrialdea) (32. or.)

1. eranskina. 2004ko abenduaren 31ko finantzen egoera-orri bateratuen oroit-idazkia.

2. Eranskina. Sociedad Cintruénigo de Servicios Municipales, S.L.ren egoera-orriak (32. or.).

Oharra: 1. eranskina foru parlamentarien eskura dago Legebiltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan eta ondoko webgunean: www.cfnavarra.es/camara.comptos).

I. SARRERA

Cintruénigoko Udalak 6.664 biztanle ditu, 2005eko urtarrilaren 1eko udal erroldaren arabera, eta haren erakunde autonomoekin batera, hauek ditu zifra adierazgarrienak 2004ko abenduaren 31n:

Entitatea	Aitorturiko betebeharrak	Aitorturiko eskubideak	Langileak 2003-12-31n
Udala	5.091.531	5.141.530	61
Uren Udal Batzarra	1.647.478	1.570.494	–
San Francisco de Asís Udal Patronatua	1.441.494	1.349.706	54
Guztira	8.180.503	8.061.730	115

Halaber, udalak honako enpresa hau dauka, bere jardunerako:

Jarduera nagusia	Zuzeneko parte-hartzearen %	Auditoriarik
Cintruénigo de Servicios Municipales, S.L.	Kirol instalazioak eta ikastetxeak garbitzea	100% Ez

Sozietateari buruzko auditoriarik ez da egin, eta dauzkan dirusarrera bakarrak udalak egindako ekarpenetatik heldu direnak dira. Udalak, bestalde, ez ditu sartzen sozietate horren kontuak bere kontabilitatearen egoera-orri bateratuetan. Txosten honen II. eranskinean jaso dira sozietate horren finantzen egoera-orriak.

Udalak ondoko mankomunitateetan hartzen du parte:

- Erriberako hondakin solidoen mankomunitatea.
- Fitero, Cascante eta Cintruénigoko Ur Mankomunitatea.
- Cintruénigo eta Fiteroko oinarrizko gizarte zerbitzuen mankomunitatea.
- Ebroko kirol mankomunitatea.

Mankomunitate horien bitartez emandako zerbitzuak dira zaborren bilketa eta tratamendua, ur-hornidura, oinarrizko gizarte zerbitzuak eta kirol jarduera batzuen koordinazioa eta antolaketa.

II. HELBURUA

Nafarroako toki administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari, Nafarroako toki ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Comptos Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Cintruénigoko Udalaren eta haren erakunde autonomoen 2004ko ekitaldiko kudeaketa ekonomiko eta finantzarioa eta gastuen eta dirusarreraren aurrekontuen betetzea fiskalizatu ditugu.

Toki entitateari aplikatzekoa den araubide juridikoa, funtsean, honako hauek osatzen dute: aipatutako legeek, Toki araubidearen oinarriak arautzeko apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Nafarroako Administrazio publikoen zerbitzuko langileen estatutuak, administrazio-kontratazioari eta hirigintza-kudeaketari buruzko araudiak eta Nafarroako toki entitateei oro har aplikatzekoa den gainontzeko araudiak.

Kontabilitatearen eta aurrekontuen arloan, araubide juridikoa ezartzen dutenak 1998ko irailaren 21eko 270, 271 eta 272 foru dekretuak dira, zeinak Nafarroako toki administrazioarako aurrekontu eta gastu publikoari, aurrekontu-egiturari eta kontabilitateari buruzkoak baitira.

Txostenaren helburua da honako hauei buruzgure iritzia adieraztea:

a) Cintruénigoko Udalaren eta haren erakunde autonomoen 2004ko ekitaldiko aurrekontuaren garapena eta betetzea.

b) 2004ko abenduaren 31ko ondare-egoeraren agerpena, aplikatzekoak zaizkion kontabilitate-printzipioei jarraikiz.

c) Udalaren eta haren erakundearen jarduera ekonomiko eta finantzarioa legezatasun printzipioaren arabera bete den ala ez aztertzea.

d) Udalaren eta haren menpeko erakunde autonomoen 2004ko abenduaren 31ko finantza-egoera.

e) Cintruénigoko Udalaren eta haren erakunde autonomoen finantzen egoera-orrien informazio osagarrian eta azalpen oharretan ageri diren datuen eta iruzkinen arrazoizkotasuna eta koherentzia.

f) Egin zuen azken fiskalizazio-txostenean, zeina 2003ko ekitaldiari buruzkoa baita, Comptos Ganberak eman zituen gomendioak noraino bete diren.

III. NORAINOKOA

Comptos Ganberak, bere jarduketa programa-rekin bat, Cintruénigoko Udalaren (aurrerantzean, udala) eta haren erakunde autonomoen –Uren Udal Batzarra eta San Francisco de Asís zahar-etxea– finantzen egoera-orrien fiskalizazioa egin du; egoera-orri horietan sarturik daude aurrekontu bateratuaren likidazioaren egoera-orria, aurrekontuen emaitza bateratua, 2004ko ekitaldiko diruzaintzako gerakin bateratua eta 2004ko abenduaren 31ko egoeraren balantze bateratua, bai eta 2004ko ekitaldiko finantzen egoera-orri bateratu horien informazio osagarria eta azalpen oharrek ere.

Udalaren titulartasuneko Cintruénigo de Servicios Municipales, SL sozietatearen finantzen egoera-orriari buruzko auditoriarik ez dugu egin. Udalaren ekarpenez beste dirusarrerarik ez du. Informazio gisa finantzen egoera-orriak erantsi ditugu dagokion eranskinean.

Udalak Kontabilitate publikoari buruzko plan orokorra ezarrita dauka, eta bateraturiko kontabilitate-orriak dauzka, udalari eta haren erakunde autonomoei dagozkienak.

Eginiko azterketak ardatz nagusi izan ditu aurrekontuaren betetzearen kapitulu ekonomikoen berrikuspena (aurrekontuko aldaketak eta aurreikuspenen betetze-maila aztertu dira) eta ondare-masa ezberdinen berrikuspena (antolaketa, kontabilitate eta barne-kontrolako gaiak aztertu dira).

Lana gauzatu da Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolako Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako fiskalizazio printzipioei eta arauari jarraituz eta aurreko urteetako lanetan age-

rian utzi diren baldintzen eta arazoan arabera beharrezkotzat jo ditugun proba guztiak aplikatuz.

Txostenean jasota daude udalaren eta haren erakunde autonomoen antolamendua, barne-kontrola, eraginkortasuna eta efizientzia hobetzeko beharrezkotzat jotzen ditugun iruzkin eta gomendioak.

Udaleko eta haren menpeko erakunde autonomoetako langileei eskerrak ematen dizkiegu lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik.

IV. IRITZIA

Eginiko fiskalizazioaren barruan, Cintruénigoko Udalaren eta haren erakunde autonomoen finantzen egoera-orriak, 2004ko abenduaren 31n amaituriko urteko ekitaldikoak, aztertu ditugu. Egoera orri horiek udalaren ardurapean egin dira.

Eginiko azterketan oinarrituz, hona gure iritzia:

IV.1. 2004ko AURREKONTUAREN LIKIDAZIO-ARI DAGOKIONEZ

Erantsi dugun 2004ko aurrekontu bateratuaren likidazioaren egoera-orriak behar bezala agertzen du, garrantzizkoak diren alderdi guztiei dagokienez, eginiko jarduera eta 2004ko abenduaren 31ko aurrekontu-egoera.

IV.2. 2004ko ABENDUAREN 31ko ONDARE-EGOERAREN AGERPENA

Erantsi dugun 2004ko abenduaren 31ko egoera-balantzeak eta oharrek behar bezala agertzen dute udalaren eta haren erakunde autonomoen finantza- eta ondare-egoera, honako salbuespen hauekin:

- Gaurkoturiko azken ondasun-inbentarioa 1995ekoa da, eta orduz geroztik gaurkotu gabe dago.

- Zalantza dago industrialdea eraikitze aldera 2003ko ekitaldian jasotako 268.054 euroko dirulaguntzen inguruan.

IV.3. LEGEZKOTASUNA

Oro har, udalaren ekonomia- eta finantza-jarduera legezkontasun-printzipioari jarraituz egin da.

IV.4. 2004ko ABENDUAREN 31ko EKONOMIA-ETA FINANTZA-EGOERA

Hasierako aurrekontua 9.035.138 eurokoa da, eta behin betikoa, 9.473.644 eurokoa. Gastuen betetze-maila ehuneko 86,35ekoa da, eta dirusarrerena, ehuneko 85,10ekoa (aurreko ekitaldian,

ehuneko 84,46koa eta ehuneko 92,51koa izan zen, hurrenez hurren).

Ekitaldiaren amaieran 269.220 euroko defizit doitua izan da, finantzaketaren desbideraketa positiboak eta negatiboak daudelako eta diruzaintzako gerakinarekin finantzatu direlako gastu batzuk.

2004ko abenduaren 31n, finantza-zorra 5.374.775 eurokoa da. Funts hauen xedea da, batez ere, inbertsioek eragindako diruzaintzako gerakin negatiboa finantzatzea, industrialdea urbanizatzea eta ur-honidurako sareak. Diruzaintzako gerakina 70.252 eurokoa da; horietatik 218.767 euro atxikitako baliabideenak dira, eta 198.037 euro, berriz, finantzazioa atxikia duten gastuenak; beraz, gastu orokorretarako 346.552 euroko defizita du diruzaintzako gerakinak. Aurrezki garbia ehuneko 3,69koa da.

Hori dela eta, nabarmendu beharra dago ezen, gure gomendioei jarraikiz –2003ko ekitaldian zorra birfinantzatu zen, eta zorraren epemuga luzatu–, ikaragarri jaitsi direla kontu korronteetako zorpekoak, eta horrenbestez, gutxitu egin direla horri lotutako finantza-gastuak.

IV.5. INFORMAZIO OSAGARRIA ETA AZALPEN OHARRAK

Finantzen egoera-orriei buruz udalaren oroitidazkian sartutako informazio gehigarriak eta azalpen oharrek informazioa ematen dute egoera-orri horiek interpretatu eta ulertzeko.

IV.6. 2003ko TXOSTENAREN GOMENDIOEN JARRAIPENA

Oro har, esan daiteke 2003ko ekitaldiari buruzko txosteneko administrazio- eta kontabilitate-izae-rako gomendio nagusiak aintzat hartuak izan direla, eta horiek behar bezala aplikatzeko neurri egokiak hartzen ari direla.

IV.7. LABURPENA ETA ONDORIO NAGUSIA

Laburbilduz, eta ondorio orokor gisa, adierazi behar dugu Cintruénigoko Udalak, ikuspuntu administratibotik, behar bezala kudeatzen dituela bere aurrekontuak. Halere, ondoko gomendioak egin nahi dizkiogu kudeaketa hobe dezan:

- *Legez ezarritako epeetan onetsi behar ditu aurrekontua eta bere aldatetak, kudeaketarako tresna gisa erabili ahal izateko.*

- *Kontrol tresnak eta aurrekontuen kudeaketaz arduratzen diren arloen arteko koordinazioa sendotu behar du.*

- *Udalaren etorkizuneko finantza-egoera aztertu behar du, eta honakoak bezalako puntuak ebaluatu behar ditu: eman beharreko zerbitzuak eta bere kostua, proiektu berriak eta zorpetze-ahalmena.*

- *Aurrekontuko aldaketen gaineko araudia bete behar du, epeei eta eskatutako dokumentazioari dagokienez, eta ez du gasturik hitzartu behar horiek kontu-hartzaileak aztertu gabe alde zurretik.*

- *Administrazio-kontratazioari buruzko araudia zorrozki bete behar du; batez ere, kontratazio-espeditentak formalizatzeari eta obren jarraipena egiteari buruzko alderdi batzuei dagokienez.*

- *Erakunde autonomoei dagokienez, beharrezkoa da haien estatutuak osatu eta gaurkotzea, horrela haien benetako autonomia maila agertzeri emateko eta udalak haien jardueraren gainean erabiltzen dituen kontrol eta zaintza mekanismoak erakusteko.*

Alabaina, ez da ahaztu behar erakunde horien eragiketarak, entitate publikoak direnez gero, kontu-hartzailetzari lotuak daudela; horregatik, eginkizun

hori benetan burutu ahal izateko egoki diren prozedurak taxutu behar ditu udalaren kontu-hartzailetzak.

- *Erakunde autonomoei eskatu behar die aurrekontua eta finantzen egoera-orriak epe barruan likidatu eta onestea.*

V. IRUZKINAK, ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

V.1. ADMINISTRAZIO-KONTRATAZIOA

Atal hau bi zatitan banatuta dago: batetik, hornidura-erosketari eta zerbitzu-emateari buruzko alderdiak, eta, bestetik, inbertsioak.

V.1.1. Hornidurak erosi eta zerbitzuak ematea

Erosketen kapitulu honetako gastuen atalik adierazgarrienak aztertu ditugu.

Udalak ekitaldian zehar egin dituen bi kontratazio espeditentarik muntakoenak ere –hornidurak erosteari eta zerbitzuak emateari buruzkoak– aztertu ditugu.

(euroak)		
Espedientea	Adjudikatzeko prozedura	Gastua, 2004
Herriko jaietan orkestrak kontratatzea	Negoziatua, publizitaterik gabekoa	48.500
Festetarako azienda kontratatzea	Negoziatua, publizitaterik gabekoa	11.013

Aipatutako espeditentak aztertutik ateratzen dugun ondorioa da bertan ez direla jaso ekintza guztiak eta ez direla egiaztatzen araudiak eskatzen dituen alderdi guztiak, eta horregatik hauxe da gure gomendioa:

- *Udalean eta haren erakunde autonomoetan aplikaturiko erosketa-prozedura idatziz garatu behar du, aholkularitza juridikoak nahiz udaleko*

kontu-hartzailetzak araudiari jarraituz bete beharreko eginkizuna berriaz zehaztu behar du, eta araudiak eskatzen duen informazio guztia espeditentetan jaso.

V.1.2 Inbertsioak

Ondoko kontratazio espeditentak aztertu ditugu, kontuan hartu gabe zenbat urtetako aurrekontu-egozpena duten:

(euroak)		
Espedientea	Adjudikatzeko prozedura	Gastua, 2004
II. industrialdea urbanizatzea.	Lehiaketa irekia	59.796
Industrialdeko F kalea urbanizatzea	Negoziatua, publizitaterik gabekoa	98.244
La Estanca baltsako obra	Negoziatua, publizitaterik gabekoa	42.992
Kultur Etxearen proiektua idaztea	Negoziatua publizitatearekin	59.000

Aztertutako espedienteetan falta da bertan kreditatu beharreko egintzetakoren bat, hala nola txosten juridikoak eta kontu-hartzailetzakoak, pleguaren onespina edo kontratazio mahaia izendatzea.

Ondotik, laburpen gisa, gomendio aipagarrienak azalduko ditugu:

- *Espedientea egin behar du inbertsio guztietan, araudiari zorrotz lotuz, eta kontratu mota eta zenbatekoaren arabera beharrezkoak diren egin-tza guztiak bete.*

- *Udaleko langileek egin behar dute azken berrikuspena, ziurtatu eta egiaztatzeko espedienteetan jasorik dagoela legeria indardunak eskatzen duen dokumentazio guztia.*

V.2. KUDEAKETARI BURUZKO BESTELAKO GOMENDIOAK.

Jarraian azaltzen dira, kudeaketa-arlo garrantzitsuenetako bakoitzerako, gure aburuz udalak bere egin behar dituen gomendio nagusiak, bere antolaketa-sistemak, prozedurak, kontabilitatea eta barne-kontrola hobetzeko.

V.2.1. Antolaketa orokorra

- *Barne araubideari buruzko erregelamendua egin behar du, horren bidez udaleko organo exekutiboen eskumenak definitu eta haien artean banatzeko eta erakunde autonomoekiko harremanak arautzeko.*

- *Plantilla langileria-beharrizanei egokitua ote dagoen jakiteko azterlan bat egin behar du, honakoak ikertuko dituena: plantilla arrazoizkoa ote den, lanpostu bakoitzeko lan-zama eta kasu bakoitzeko ordainsari-mailak eta gastu sozialak.*

- *Oinarrizko kudeaketa-prozedurak idatziz jarri behar ditu, eta exekuzio-faseetarako arduradunak identifikatu eta esleitu behar ditu, kontu-hartzailetzaren eta aholkularitza juridikoaren aldetik beharrezkoa den partaidetza aurreikusiz, halakoak aginduzkoak direnean.*

- *Udalak bere erakunde autonomoen ekintzen gain egin beharreko kontrol eta zaintza behar bezala bermatzeko prozedurak taxutu behar ditu.*

V.2.2 Inbentarioa-ibilgetua

- *Udal ondasunak –jabari publikokoak, ondarekoak eta herri ondasunak– eskrituretan jaso eta erregistratzeko prozesua osatu behar du.*

- *Udal inbentarioa etengabe gaurkotzeko eta hura ibilgetuarekin konektatzeko bidea emanen duten prozedurak diseinatu eta aplikatu behar*

ditu, kontu hauei aplikatzekoak zaizkien kontabilitateko irizpideen arabera.

- *Ibilgetua osatzen duten elementuak amortizatzeke irizpideak ezarri behar ditu, eta orain arte bildutako informazio guztia erregistratu.*

V.2.3. Langileak

- *Erakunde autonomoetako plantilla organikoa eta lanpostuen zerrenda onetsi eta argitaratu behar du.*

- *Langileen kontratazioari buruzko araudia zorrozki aplikatu behar da.*

- *Idatziz eta urtero eskatu behar die udaleko eta haren erakunde autonomoetako langile guztiei familia egoeraren ziurtagiria, haien nominetan PFEZren atxikipena egoki egin ahal izateko.*

V.2.4. Tributu bidezko dirusarrerak eta prezio publikoak

- *Tasa eta prezio publikoek jasaten dituzten kostuei buruzko azterlanak aldizka gaurkotu behar ditu.*

- *Kasuan kasuko errekarquak aplikatu behar ditu beti.*

V.2.5. Diruzaintza

- *Gordailuzaintzaren ondoriozko kobrantzak murriztea ahalbidetuko duten prozedurak taxutu eta aplikatu behar dira.*

- *Eskudiruaren kutxaren kontrol egokia eta erabilera murriztua ziurtatzeko arau batzuk prestatu behar dira.*

- *Bankuen arloko berdinkatzeak aldiro egin beharrekoak dira.*

V.2.6 Alderdi orokorrak

- *Gastu-betebeharrak aitortu aurretik behar adinako kreditua dagoela egiaztatzea ahalbidetuko duen prozedura bat ezarri behar da.*

- *Udalaren aurrekontuak legedian ezarritako epeetan egin eta onestu behar dira.*

- *Behar bezala justifikatu behar dira askotariko zerbitzuen ondorioz sortzen diren zenbateko txiki-gastuak, eta kasuko atxikipena egin behar da.*

- *Kobratzeko dauden eskubideak aldi-aldi-aldian igorri behar zaizkio dirubilketa agenteari.*

- *Udalaren eta haren erakunde autonomoen kontabilitatea gaurkoturik eduki behar da, kudeaketa tresna baliagarria izan dadin.*

V.3. GORABEHERAK (INDUSTRIALDEA)

Bere horretan dirau industrialdea eraikitze aldera 2003ko ekitaldian jasotako Industria Departamentuaren 268.054 euroko dirulaguntzaren gorabeherak.

Gorabehera hori 2003ko ekitaldiari buruzko txostenean aztertu genuen zehatz eta mehatz.

Francisco Javier Sesma Masa auditorea arduratu da lan honetaz, eta hark proposatuta eman da txosten hau, araudi indardunak ezarritako tramiteak bete ondoren.

Iruñean, 2006ko otsailaren 23an

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

2. Eranskina. Sociedad Cintruénigo de Servicios Municipales, S.L. ren egoera-orriak**Balantzea**

AKTIBOA			PASIBOA		
ZORRA	2004	2003	HARTZEKOA	2004	2003
Ibilgetua	0,00	0,00	Sozietatearen kapitala	6.010,12	6.010,12
Bezeroak	0,00	3.500,00	Aurreko ekitaldiko emaitzak	(1.304,27)	(1.237,70)
Administrazio publikoak	3.369,59	3.159,40	Galdu-irabaziak	29,16	(66,57)
Zordunak	3.369,59	6.659,40	Hornitzaileak	61,00	61,00
Diruzaintza	3.993,33	437,88	Administrazio publikoak	2.566,91	2.330,43
			Hartzekodunak	2.627,91	2.391,43
AKTIBOA, GUZTIRA	7.362,92	7.097,28	PASIBOA, GUZTIRA	7.362,92	7.097,28

Galera eta irabazien kontua

ZORRA	2004	2003	HARTZEKOA	2004	2003
Salgaiak	1.313,70	1.555,15	Salmentak	195.700,00	180.233,48
Beste enpresa batzuen lanak	0,00	31,41			
Soldata eta ordainsariak	145.781,01	133.691,16			
Gizarte Segurantzza	48.478,60	44.240,75			
e) Finantza-gastuak	97,53	781,58			
Gastuak	195.670,84	180.300,05	Dirusarrerak	195.700,00	180.233,48
Ekitaldiko mozkinak	29,16	-	Ekitaldiko galerak	-	66,57

Azkoien Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2004ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko martxoaren 13an eginiko bilkuran, erabaki zuen Comptos Ganberak Azkoien Udalari buruz egin-dako fiskalizazio txostena, 2004ko ekitaldikoa, argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2006ko martxoaren 13an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Azkoien Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2004ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (33. or.).
- II. Helburua (33. or.).
- III. Norainokoa (34. or.).
- IV. Iritzia (34. or.).
 - IV.1. 2004ko aurrekontuaren likidazioari dagokionez (34. or.).
 - IV.2 2004ko abenduaren 31ko ondare-egoeraren agerpena (34. or.).
 - IV.3 Legezkotasuna (35. or.).

IV.4 2004ko abenduaren 31ko ekonomia- eta finantza-egoera (35. or.).

IV.5 Informazio osagarria eta azalpen oharrak (35. or.).

IV.6 2003ko txostenaren gomendioen jarraipena (35. or.).

IV.7 Laburpena eta ondorio nagusia (35. or.).

V. Iruzkina, ondorioak eta gomendioak (35. or.).

V.1 Administrazio-kontratazioa (35. or.).

V.2 Kudeaketari buruzko bestelako gomendioak (36. or.).

VI. Gorabeherak (37. or.).

Eranskina. 2004ko finantzen egoera-orri bateratuen oroitidazkia.

Oharra: 1. eranskina foru parlamentarien eskura dago Legebiltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan eta ondoko webgunean: www.cfnavarra.es/camara.comptos.

I. SARRERA

Azkoien Udalak 5.681 biztanle ditu eta, haren erakunde autonomoarekin batera, hauexek ditu zifra adierazgarrienak 2004ko abenduaren 31n:

Entitatea	Aitorturiko betebeharrak	Aitorturiko eskubideak	Langileria
Udala	4.873.503	5.409.492	37
Musika eskola	168.022	196.369	18
Doikuntzak	(73.000)	(73.000)	
Bateratua	4.968.525	5.532.861	55

Udala Azkoien-Faltzes-Martzilla-Funesko Oinarriko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko partaide da, eta mankomunitate horren bidez ematen ditu gizarte zerbitzuak. Bestalde, Goi Erriberako Hiri Hondakin Solidoen Mankomunitateko partaide ere bada, eta horren bidez ematen dira hiri hondakin solidoen kudeaketa- eta tratamendu-zerbitzuak.

II. HELBURUA

Nafarroako toki administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari, Nafarroako toki ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Comptos Ganberari buruzko abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, fiskalizatu egin ditugu bai Azkoien Udaleko kudeaketa ekonomiko eta finantzarioa, bai eta udal horren nahiz

haren erakunde autonomoaren 2004ko ekitaldiko gastu eta dirusarreraren aurrekontuen betetzea ere.

Fiskalizaturiko toki entitateari aplikatzekoa zaion araubide juridikoa, funtsean, honako hauek osatzen dute: arestian aipatutakoak eta Toki araubidearen oinarriak arautzeko apirilaren 2ko 7/1985 Legea, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutua, hirigintza-kudeaketa eta administrazio-kontratazioa arautzen duen araudia eta Nafarroako toki entitateei aplikatzekoa zaien gainontzeko araudia.

Kontabilitatearen eta aurrekontuen arloan, araubide juridikoa ezartzen dutenak 1998ko irailaren 21eko 270, 271 eta 272 foru dekretuak dira, zeinak Nafarroako toki administrazioarako aurrekontu eta gastu publikoari, aurrekontu-egiturari eta kontabilitateari buruzkoak baitira.

Txostenaren helburua da honako hauei buruzko gure iritzia adieraztea:

a) Azkoiengo Udalaren eta haren erakunde autonomoaren 2004ko ekitaldiko aurrekontuaren garapena eta betetzea.

b) 2004ko abenduaren 31ko ondare-egoera agertzea, aplikatzekoak diren kontabilitate-printzipioei jarraituz.

c) Jarduera ekonomiko-finantzarioa legezkotasun-printzipioari lotua egon ote den.

d) Udalaren eta haren erakunde autonomoaren 2004ko abenduaren 31ko finantza-egoera.

e) Azkoiengo Udalaren finantzen egoera-orri bateratuen informazio osagarrian eta azalpen oharretan ageri diren datuen eta iruzkinen arrazoizkotasuna eta koherentzia.

f) Egin zuen azken fiskalizazio-txostenean, zeina 2003ko ekitaldiari buruzkoa baita, Comptos Ganberak eman zituen gomendioak noraino bete diren.

III. NORAINOKOA

Comptos Ganberak, bere jarduketa programarekin bat, Azkoiengo Udalaren (aurrerantzean, udala) eta haren erakunde autonomoaren –Musika Eskola– finantzen egoera-orri bateratuen fiskalizazioa egin du; egoera-orri horietan sarturik daude 2004ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioaren egoera-orria, aurrekontuen emaitza eta diruzaintzako gerakina, eta 2004ko abenduaren 31ko egoeraren balantzea, bai eta finantzen egoera-orri horien informazio osagarria eta azalpen oharrak ere, 2004ko ekitaldikoak.

Udalak Kontabilitate publikoari buruzko plan orokorra ezarrita dauka, eta kontabilitatearen egoera-orri bateratuak dauzka, udalari eta haren erakunde autonomoari dagozkienak.

Egindako azterketaren arretagaia, beraz, aurrekontuaren betetzearen kapitulu ekonomikoei buruzko azterketa izan da, haren aldaketak aztertuz eta aurreikuspenak zein neurritan bete diren ikertuz. Ondare masak aztertu dira, bai eta antolaketak, kontabilitate eta barne kontroleko alderdiak ere.

Lana burutu da Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako fiskalizazio printzipioei eta arauari jarraituz eta aurreko urteetako lanetan agerian utzi diren baldintzen eta arazoaren arabera beharrezkotzat jo ditugun proba guztiak aplikatuz.

Txostenean daude udalaren eta haren menpeko erakunde autonomoaren antolamendua, barnekontrola, eraginkortasuna eta efizientzia hobetzeko beharrezkotzat jotzen ditugun iruzkin eta gomendioak.

Lan hau egitean emandako laguntza eskertzen diegu udaleko eta haren erakunde autonomoko langileei.

IV. IRITZIA

Buruturiko fiskalizazioaren barruan, Azkoiengo Udalaren eta haren erakunde autonomoaren finantzen egoera-orri bateratuak, 2004ko abenduaren 31n amaituriko ekitaldikoak, aztertu ditugu. Egoera-orri horiek udalaren ardurapean egin dira.

Eginiko azterketan oinarrituz, hona gure iritzia:

IV.1. 2004ko AURREKONTU BATERATUAREN LIDIKAZIOARI DAGOKIONEZ

Erantsi dugun 2004ko aurrekontuaren likidazioaren egoera-orriak behar bezala agertzen du, garrantzizkoak diren ikuspegi guztiei dagokienez, eginiko jarduera eta 2004ko abenduaren 31ko aurrekontu-egoera.

IV.2. 2004ko ABENDUAREN 31ko ONDARE-EGOERAREN AGERPENA

Erantsitako 2004ko abenduaren 31ko egoera-balantze bateratuak behar bezala agertzen du udalaren eta haren menpeko erakunde autonomoaren finantza- eta ondare-egoera bateratua, salbu eta ondasunen (ibilgetua) inbentarioaren kasuan; izan ere, 1995ekoa da eta gaurkotu gabe dago.

IV.3. LEGEZKOTASUNA

Oro har, udalaren jarduera ekonomiko-finantzarioa legezkotasun-printzipioari jarraituz egin da.

IV.4. 2004ko ABENDUAREN 31ko FINANTZA-EGOERA

Hasierako aurrekontu bateratua, 2004an, 8.563.420 eurokoa da, eta behin betikoa, 9.507.506 eurokoa. Gastuen betetze-maila ehuneko 52koa du, eta dirusarrerena, ehuneko 58koa. Desbideraketa, gehienbat, 2004ko ekitaldiko aurrekontuan sartutako zenbait inbertsio aurreikusi bezala bete ez izanari zor zaio, eta horrek eragin du halaber transferentzien bidezko dirusarreraren betetze maila ere apala izatea. Aurrekontuan jasotako lurzatiatarik bakar bat saldu izanak eragin du ekitaldi honetan ehuneko 15ekoa izatea inbertsio errealean besterentzetik heldu diren dirusarreraren betetze maila.

Dirusarreraren artean, zuzeneko zergen exekuzioa ehuneko 112,83koa izan da, eta zeharkakoen ehuneko 201,72koa; bi kapitulu horiek ekitaldiko dirusarreraren ehuneko 25 egiten dute. Aurrekontu bateratuaren baliabideen ehuneko 37 dirulaguntzetatik datoz.

Ekitaldia ixtean superabit doitua 768.203 eurokoa zen. 2004ko abenduaren 31ko banku-zorra 2.245.043 eurokoa zen; 2004ko ekitaldian 665.000 euro baliatu ziren, aurreko ekitaldian emandako mailegu-poliza batekoak. Aurrezki garbia ehuneko 13koa da, eta diruzaintzako gerakin bateratua 1.099.157 eurokoa.

Laburtuz, finantzaren ikuspegitik udalaren egoeraren ezaugarriak ekitaldia ixtean honakoak dira: 2.245.043 euroko finantza zorra, 1.099.157 euroko diruzaintza gerakina eta ehuneko 13ko aurrezki garbi positiboa.

IV.5. INFORMAZIO OSAGARRIA ETA AZALPEN OHARRAK

Finantzen egoera-orri bateratuen informazio osagarrian eta azalpen oharretan beharrezkoa den informazioa dago, oro har, egoera-orri haiek ongi interpretatu eta ulertzeko, udaleko oroitidazkiak agertzen duenez. Halere, gure ustez, ekitaldian zehar egindako inbertsioei buruzko informazio zehaztua jaso behar du.

IV.6. 2003ko TXOSTENAREN GOMENDIOEN JARRAIPENA.

Oro har, esan daiteke 2003ko ekitaldiari buruzko txostenean egindako administrazio eta kontabi-

litate izaerako gomendio nagusiak aintzat hartu direla, eta batzuk 2005ean jarri direla praktikan.

IV.7. LABURPENA ETA ONDORIO NAGUSIA

Laburbilduz, eta ondorio orokor gisa, adierazi behar dugu Azkoiengo Udalak, ikuspuntu administratibotik, behar bezala kudeatzen dituela bere aurrekontuak. Hala ere, prozedurak hobetearren, behar diren gomendioak biltzen dira hurrengo epigrafearn.

V. IRUZKINAK, ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

V.1. ADMINISTRAZIO-KONTRATAZIOA.

Atal honetan xeheaturik agertuko ditugu, alde batetik, hornidurak erosi eta zerbitzuak emateari buruzko alderdiak eta, bestalde, inbertsioak.

V.1.1. Hornidurak erosi eta zerbitzuak ematea

Gastuen atal honetako kontusail nagusiak aztertu ditugu, bai eta aurreko ekitaldiarekin alderatuz gero igoera adierazgarriak izan dituztenak ere. Azkoiengo tokiko telebista kudeatzeko zerbitzuak direla-eta ekitaldian egin diren kontratazio espedienteak eta lanpostuak aztertze laguntza teknikoarena ere aztertu ditugu.

Tokiko telebista kudeatzeko zerbitzuak 2004ko martxoan adjudikatu ziren, 29.000 eurotan, prentsan iragarritako prozedura negoziatuaren bidez.

Lanpostuak aztertze laguntzaren kasuan, zerbitzua 6.000 eurokoa baitzen, zuzeneko adjudikazioa baliatu zen, eskaintzak eskaturik.

Gure azterketaren arabera, behar bezala errespetatu da aplikatzekoa den araudia. Comptos Ganbera honen gomendioak betez, erosketen kudeaketarako prozedura normalizatua aplikatzen da. Hala ere, hau da gure gomendioa:

- *Idatziz garatzea erakunde autonomoari aplikatzen zaion erosketa-prozedura. Horretarako, aholkularitza juridikoak eta udal kontu-hartzailetzak duten zeregina berariaz zehaztu beharko da, araudiari jarraikiz.*

- *Kontratuen erregistroa, datuak modu sistematikoan biltzea ahalbidetzen duena, mantentzea.*

V.1.2 Inbertsioak

Hona hemen 2004an eginiko inbertsio nagusi- en zehaztapena (inbertsio horiek 2004ko ekitaldian zehar aitorturiko betebeharren ehuneko 48 egiten dute, gutxi gorabehera):

Espedientea	Prozedura	Adjudikazioaren zenbatekoa	2004ko gastua (eurotan)	2003ko gastua (eurotan)
Biltegien kloratzailea (*)	Lehiaketa	504.600	290.300	90.510
Aparkalekuko plazaren urbanizazioa (*)	Lehiaketa	523.601	100.527	243.801
Euri-uren bilketa (*)	Lehiaketa	154.600	98.640	114.924
Kultur Etxearen proiektua	Presako lehiaketa	156.750	79.189	-
Belar artifizialeko futbol zelaia	Presako lehiaketa	685.628	717	-
Zenbait eraikin botatzea	Negoziatua, prentsan iragarri beharrekoa	35.056	43.187	-
Guztira			612.560	449.235

(*) Obra hauen espedienteak adjudikatzeko prozedurei buruzko iruzkinak ganbera honen aurreko txostenetan jaso ziren.

Kultur etxearen proiektuari, zenbait eraikin botatzeari eta futbol zelaiari dagokien dokumentazioa aztertutik, gure ondorioa da errespetatu egin dela araudi indarduna adjudikazio eta kontratazio-rako prozeduretan.

Kultur Etxearen proiektuaren espedientearen ez da jasota ageri adjudikazioa NAOn argitaratu izana, eta eraikinak botatzeari buruzkoan ez da jasota ageri kontratazio mahaiaren proposamena jendaurrean ireki izanaren akta, ezta kontratazio mahaiaren behin betiko proposamena ere.

Egindako azterketatik ondorioztatzen da ezen, oro har, inbertsio-gastuak egitean araudi indarduna betetzen dela. Hala ere, hau da gure gomen-dioa:

- *Araudiak eskatzen dituen alderdi formal guztiak betetzea kontratazio espedienteetan.*
- *Ekitaldi bakoitzean adjudikatutako espedienteen erregistroa izatea.*

V.2. KUDEAKETARI BURUZKO BESTELAKO GOMENDIOAK.

Jarraian azaltzen dira, kudeaketa-arlo garrantzitsuenetako bakoitzerako, Comptos Ganbera honen aburuz udalak jarraitu behar dituen gomen-dio nagusiak, bere antolamendu, prozedura, kontabilitate eta barne-kontrolerako sistemak hobetzeko.

V.2.1. Antolaketa orokorra

- *Barne Araubideari buruzko Erregelamendua egitea, horren bidez eskumenak zehaztu eta banatzeko eta udaleko organo exekutiboan eta udalaren erakunde autonomoaren artean kontrol,*

*esku-hartze eta tutoretzarako jardunbide eraginkor-
rak ezartzeko.*

- *Oinarrizko kudeaketa-prozedurak idatziz jar-tzea, eta exekuzio-faseetarako arduradunak identi-fikatu eta esleitzea.*

V.2.2 Inbentarioa-ibilgetua

- *Udal ondasunak –jabari publikoak, ondare-koak eta herri ondasunak– eskritoretan jaso eta erregistratzeko prozesua osatu behar da.*

- *1995eko udal inbentarioa gaurkotu eta ones-tea, eta altak eta bajak kontrolatzeko eta jarraitze-ko sistema bat ezartzea, hura etengabe gaurko-tzea eta kontabilitateko ibilgetuarekin lotuta egotea erraztuko duena.*

V.2 3. Diruzaintza

- *Diruzaintzako funtsez baliatzeko sinadura mankomunatu baimenduak gaurkotzea.*

V.2 4. Langileak

- *Udal langile bakoitzaren espediente adminis-tratiboan jaso behar dira haren karreraren eta inguruabar pertsonalen agintzea eta dokumentu garrantzitsu guztiak.*

- *Udalaren plantilla organikoa onestea legedi indardunean ezarritako epeetan.*

V.2.5. Tributu bidezko dirusarrerak eta prezio publikoak

- *Aplikazio informatikoa aldatzea, luzapenaren-gatiko erreargua bidezkoa denean egozteko aukera eman dezan, eta ez soilik zorrak agente betearazleari bidaltzean.*

- *Tasa eta prezio publikoek jasaten dituzten kostuei buruzko azterlanak aldizka gaurkotzea.*

V.2.6. Kontabilitatea eta aurrekontuak

- *Udalaren aurrekontuak egin eta onestea legedi indardunean ezarritako epeetan, bai eta haien likidazioa ere.*

- *Zorra ongi sailkatzea epe motzean eta luzean, mugaegunaren arabera.*

VI. GORABEHERAK

Udala administrazioarekiko auzietako zenbait prozeduratan sartuta dago. Garrantzitsuena hauxe da:


- Administrazioarekiko 482/02 zenbakiko auzi-errekurtsoa; desjabetzapen bati buruzkoa; Nafarroako Auzitegi Nagusiak udalaren kontrako 137.479 euroko epaia eman zuen 2005eko azaroaren 15ean.

Zenbateko hori 2005eko ekitaldian ordaindu zen, nahiz eta ez dagoen jasota udalaren 2004ko abenduaren 31ko finantzen egoera-orrietan.

Francisco Javier Sesma Masa jauna arduratu da lan honetaz, eta hark proposatuta eman da txosten hau, araudi indardunak ezarritako tramiteak bete ondoren.

Iruñean, 2006ko martxoaren 6an

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA ORRIA

Izen-deiturak

Helbidea

Telefonoa *Hiria*

P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu.

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urtebete 43,95 euro	
Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko 1,15 »	
Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko 1,30 »	